

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2020/2021 ikasturtea

IPUIN MUSIKALA GARAPEN INTEGRALA SUSTATZEKO HAUR HEZKUNTZAN

ERANSKINAK

Egilea: Jone Virto Herrán

Zuzendaria: Iskandar Rementeria Arnaiz

Leioan, 2021eko ekainaren 1ean

ERANSKINAK

1. Elkarrizketak	30
2. Irakaslearen egunerokoaren eredia	37
3. Esku-hartzearen saioak	38
4. Herri Berri proiektuaren taula	69
5. Proiektuen ebaluazio adierazleen emaitzak	74
6. Hobekuntza proposamenak	78

1. ERANSKINA: ELKARRIZKETAK

Ikastetxeko funtzionamenduagatik eta Covid19-aren egoeragatik musika eta psikomotrizitate saiorik ez dagoenez, ez dago ikasgai hauetako irakaslerik. Hori dela eta, elkarrizketak tutoreei eta haien artean psikomotrizista den bati egingo zaizkie. Horrez gain, umeekin hitz egindakoa ere erregistratuko da.

1.1. IRAKASLEENTZAKO ELKARRIZKETAK

1.1.1. TUTOREARI ELKARRIZKETA

Ikastetxeko HH 5 urte A gelako tutorea.

Ze metodologia erabiltzen duzue lan egiteko?

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza da ikastetxeko oinarri metodologiko orokorra. Horrez gain, zirkulazio libreaz ere baliatzen gara.

Zein da metodologia honen abiapuntua eta prestakuntza?

Proiektuekin lan egitean haurrak errealitateaz duen ezagutza dugu abiapuntu. Beraz, umearen aurre-jakintzak hartuko ditugu oinarritzat eta ikasketa esanguratsua izango da.

Helmuga ere haurrak adieraziko du, eskema eta hipotesien bidez. Izan ere, proiektuetan lan egitean haurra da protagonista.

Edukiak barneratzeaz gain, proposatzeko, ikertzeko eta huts egiteko gai izateko ere bideratuko ditugu, besteak beste. Horren bidez, ingurunea ulertzera iristea da gure helburuetako bat.

Zertan datza eta nola garatzen duzu proiektu bat?

Proiektu bat ekintza edo gauzatze plan bat da; haurrek eta irakasleak proposatzen dute eta emaitza zehatz bat lortu nahi da.

Horretarako, ideiak azaltzen, negoziatzen eta denon artean erabakiak hartzen ditugu eta hurrengoa planteatzen dugu:

- Zer egin nahi dugu.
- Zertarako egin nahi dugu.
- Zer behar dugu
- Zerekin egingo dugu
- Non bilatu behar dugu
- Erantzukizunak banatu

Ikastetxe osoa koordinatzen da, normalean proiektu berdina aurrera eramaten delako zentro osoan. Gure kasuan, une oro ari gara etapako kidearekin batzartzen eta gauzak adosten.

Familien parte-hartzea eta inplikazioa ere ezinbestekoa da.

Zein da zirkulazio librearen helburua?

Espazio zabalagoak izatea eta ikasleen mugimendu askea eta elkarren arteko harremanak bultzatzea, ikaskuntza esanguratsua eta integrala sustatuz.

Zein da zure irakasle-rola?

Haurrak behatzea, gidatzea eta beharrezkoa denean laguntzea. Horrez gain, haien nahiak eta jakintzak kudeatuz, erabakiak hartzen, pentsatzen eta ikertzen lagunduko ditut.

Nola deskribatuko zenuke ikastetxe eta familien arteko erlazioa? Nola inplikatzen dira familiak?

Oso garrantzitsua da familiei guk ikaskuntza nola ulertzen dugun adieraztea. Gurasoek gure lan egiteko era eta haien seme-alabek lortuko dituzten onurak ulertzen badituzte, gogotsu parte hartuko dute proiektuan.

Familiak proiektuan inplikatu baino lehen, informatuak, errespetatuak eta entzunda sentitu behar dira. Beraz, etengabeko komunikazio eta elkarrekintzan aritzen garela esan daiteke. Familien parte-hartzea ikaskuntzan oso garrantzitsua eta beharrezkoa baita.

Familien inplikazioari dagokionez, proiektu baten hasieran, eskutitz edo ohar bat bidaltzen zaie eskolatik, non proiektuaren berri ematen zaien, helburuak azaltzen zaizkien eta haien parte-hartzea eskatzen den. Adibidez, materialak eskatuz, gaian jakintzak dituen norbait badago ikastetxera gai horren inguruan hitz egitera etortzeko eskatuz, etab.

Horrez gain, gurasoak jaietan laguntzera etorri ohi dira, instalazioak moldatzen edo zaintzen parte-hartzen dute, ikastetxeko arlo ezberdinak kudeatzeko eta zenbait erabaki hartzeko ere kooperazioan aritzen dira zentroarekin, besteak beste.

Metodologia honek ze onura dakarrela uste duzu?

Haur Hezkuntza, eginkizun partekatua da, funtsezkoa baita elkarrekiko konfiantza eta onarpeneko harremanak ezartzea familien eta eskolaren artean, komunitate osoaren onurarako eta hurrengo arloak asetzeko: segurtasun afektiboa, beharrian fisiologikoak, ikasleen ikaskuntza-prozesu eta garapen egokirako askotariko testuinguru aproposen

antolaketa, eta aniztasunaren zainketarako eta kultura-partaidetzarako balio egokiak, besteak beste.

Ze erlazio dauka metodologia horrek HH-ko curriculumarekin?

Proiektuak lan egiteak gure ikasleengan onurak sortzeaz aparte, kompetentzien araberako hezkuntzan hezteko delako uste dugu.

Heziberri curriculumak metodologia atalean hurrengoak aipatzen ditu “Oinarrizko kompetentziak gonoraz landuko badira, haurrak gogoz parte hartu behar du ezagutzak bilatu, ikasi, probatu, haien gainean hausnartu, aplikatu eta komunikatzeko prozesuetan.”. Proiektuen bidez lan eginez, bertan aipatzen dena betetzen da.

Nola ebaluatzen duzu?

Ebaluazio-prozesuak lan jarduerak, materialak edota espazioak moldatzen, bideratzen edo lan proposamenak zehazten laguntzen du, haurren eta taldearen desberdintasun indibidualak behatzen diren heinean.

Ebaluazioa irakasleok egiteaz gain, haurrek ere egingo dute (autoebaluazioa). Jarduerak eta baliabideak erabilgarriak izan diren ala ez aztertuko dira, eta proposak ez izatekotan hobekuntza proposamenak azalduko dira.

Beste alde batetik, ikasi nahi genuena eta proiektuaren hasierako helburuez aparte, ikerketa-prozesua eta garapena ere kontutan hartuko ditugu.

Ebaluatzeko, behaketa sistematikoa egin behar dugu. Horretarako, hainbat tresna erabiliko ditugu, hala nola, irakaslearen egunerokoa, haurren lanak, bakarkako eta taldeko informazioaren bilketa, haurren elkarrizketen, jolasen eta elkarrekintzen behaketak, etab.

Nola lantzen duzu sormena? Adibidez, ze jarduerak egiten dituzue sormena lantzeko?

Haurrak sortzaileak dira berez, horregatik estimulatu besterik ez zaie egin behar. Proiektuen bidezko metodologiarekin eta zirkulazio librearekin sormena lantzen da.

Ikastetxean, jolasari ematen diogu lehentasuna, sormena eta berezkotasuna garatzeko baliabiderik onenetarikoa baita. Hori haurrei autonomia eta segurtasuna emanez, haien lan-erritmoak errespetatuz eta pentsatzeko eta ideiak sortzeko denbora emanez egiten saiatzen gara.

Era berean, irudimena eta jakin-mina garatzeko eta haiekin esperimendatzeko material ezberdinak eskaintzen dizkiegu (birziklatzeko materiala, material naturalak...).

Haurren interesak kontuan hartzen ditugu, eta haien ideiak entzuten eta praktikan jartzen saiatzen gara. Lehen aipatu dudan bezala, espazio libre, estimulatzaile eta ludikoak ditugu, non haurra konfiantzaz eta autonomiaz mugi daitekeen. Ahal bada, aire zabaleko jarduerak ere egiten ditugu.

Sormena lantzeko jarduerari dagokienez, asko gustatzen zaie ipuinen amaiera asmatzearena edota marrazkiaren edo eraikuntzaren bidez nahi dutena espresatzeko aukera izatearena.

Uste duzu musika bide bat izan daitekela metodologia honetako helburuak lortu ahal izateko?

Bai, azken finean musikak ia egoera guztietan laguntzen dio haurren garapenari, sormena eta irudimena indartuz.

Momentu honetan musika saiorik ez dagoela kontuan hartuta, nolakoa da musikaren presentzia gelan?

Nik esango nuke momentu honetan ez dela oso ugaria.

Tutore gehienok, ez dugunez arloaren inguruan prestakuntza handirik jaso, ez gaude guztiz prestatuta musika espezialista gisa aritzeko. Hala ere, erritmoak, melodiak, instrumentuak, abestiak, dantzak... lantzen saiatzen gara. Baina askotan, esan dudan moduan, tutore bakoitzaren arabera da lanketa hori. Hori dela eta, oso ondo iruditzen zait Haur Hezkuntzako ikasleentzat ere Musikako Minorra egotea unibertsitatean. Nire iritziz, minor hau egiten duten ikasleak izan beharko lirатеke Haur Hezkuntzan musikako ikasgaia irakasteko aukera dutenak.

Ezagutzen duzu ipuin musikala edo ipuin motorra? Landu dira ikastetxean?

Bai, ezagutzen ditut. Ni eskolara iritsi nintzenetik, musikarekin erlazionatutako jarduera ezberdinak ikusi ditut, esaterako, musikogramak, dantzak, abestien ikaskuntzak... Baina momentuz, ez dut ipuin musikalen inguruko lanketarik ikusi.

1.1.2. PSIKOMOTRIZISTARI ELKARRIZKETA

“Psicomotricista Educativa” eta ikastetxeko HH 5 urte B gelako tutorea.

Ze metodologia erabiltzen duzue lan egiteko?

Psikomotrizitate erlazionalaren metodologia erabiltzen dugu eta Aucouturierren teorian oinarritzen gara.

Ze jarduerak erabiltzen dituzue?

Jarduerak egiteko Aucouturierren Praktika Psikomotorraren (APP) gune eta denbora ezberdinetan oinarritzen gara. Denbora egiturak sinbolizatzen du nola haurrek hasieran komunikatzeko gorputza erabiltzen duten eta gero hizkuntza. Haurrak sinbolizazio maila ezberdinetatik igarotzen dira. Hasieran, adierazkortasun sentoriorraren fasean, haurrak gorputzaren eta mugimenduaren bidez komunikatzen dira. Gainerako faseetan ordea, (sarrera errituala, ipuina, adierazkortasun plastiko/grafikoa eta irteera errituala) garrantzi handiagoa ematen zaio hizkuntzari. Haurrek horrela, heldutasun psikologikoaren plazerra sentitzen dute.

Ze erlazio dauka metodologia horrek HH-ko curriculumarekin?

Psikomotrizitate-teknikak aplikatuz, haurraren gaitasun emozionalak eta kognitiboak garatu ahal izango ditugu, haurraren sentimenduak adierazten lagunduz. Horrela, bere bizitzan zehar sor daitezkeen zailtasunak konpontzeko tresnak bermatuko ditugu.

Horrez gain, gaitasun motorra garatzeko aukera ematen du, eta, horren bidez, haurrak bere identitatea eraikitzen du, bere gorputza ezagutzen du, adierazpen-tresna gisa erabiltzen du, bere gorputz-eskema egiten du, denbora-errealitatea esperimentatzen du, eta bizi den kanpo-munduaz eta besteekin harmonian partekatu behar duen espazioaz jabetzen da.

Gorputz adierazpenak «den bezalakoa» adierazteko aukera ematen dio umeari, keinuen, aurpegiko adierazpenen, mugimenduen, jarreraren eta gorputz harremanen bidez eratutako hizkuntza propioarekin. Ideiak eta emozioak adierazteko eta besteen adierazpenak egoki interpretatu eta baloratzeko aukera emanez.

Zein da zure rola?

Hezitzailea laguntzailea izan behar da batez ere. “Observar lo que se ve para comprender lo que no se ve”. Beraz, arretatsua, onargarria eta enpatikoa ere izan behar da, eta entzute-

gaitasuna izan behar du. Haurrak egiten duena ulertu eta irakurtzen jakin behar du eta erantzun egoki bat emateko gai izan behar da.

Autoritatea izan behar du, baina ez da autoritarioa izan behar. Hau da, umeak libreki aritu daitezten, hezitzailea irakaskuntzaren oinarria eta segurtasunaren sinbologia izan behar da. Horretarako, guztion segurtasuna bermatzeko, errespetatu behar diren zenbait arau daudela transmititu behar du.

Zein da metodologia honen abiapuntua?

Jolas espontaneoak. Izan ere, jolas mota hau ezinbestekoa da umearen garapen psikologikorako. Haurra inguruan duen mundua arakutzen eta deskubritzen doa, bere gaitasunen eta garapen-aldiaren arabera.

Nola antolatzen duzu saioa?

Aucouturierren pedagogia ez-zuzentzailea da; horrek ez du ezan nahi libre denik, baizik eta beste estrategia edo baliabide batzuk erabiltzen direla haurra gidatzeko. Horregatik, saioek APP-ak zehaztutako faseak progresiboki jarraitzen dituzte:

- Sarrera-errituala (harresia).
- Adierazkortasun-motorraren fasea.
- Ipuina.
- Adierazkortasun-plastikoaren fasea.
- Irteera errituala.

Ze onura dakarrela uste duzu?

Bat-batekotasunetik eta esploratzeko-gaitasunetik abiatuz; haurra kanpoko mundua deskubritzeko eta ulertzeko, bere barne-mundua aurkitzeko, bere emozioez jabetzeko eta bere garapen kognitiboa aurrera eramateko gai izango da.

Horrez gain, praktika psikomotorrak umeari ziurtasun afektiboa eraikitzeke baliagarria izango zaio. Horrek, komunikaziora eta sozializaziora bultzatuko du haurra.

Zein da helburu nagusia?

Jolasa abiapuntua izanda, haurrari bere garapen-prozesuan laguntzea, bere kompetentzia emozional eta sozialak indartuz. Gainera, funtzio sinbolikoa garatzea, deszentrazioan laguntzea, biraseguramendu prozesuetan laguntzea eta eratzeko edo sortzeko plazerra piztea ere lortu nahi da.

Nola lantzen duzu sormena? Adibidez, ze jarduerak egiten dituzue sormena lantzeko?

Alde batetik, bat-batekotasuna eta sormena indartuko dituzten egoerak eraginez, haurrari autonomia eta segurtasuna emanaz, eta haren garapenaren erritmoa errespetatuz. Beste aldetik, libreki jolastea ahalbidetuko duen materiala eskuragarri jarritz (oihalak, eraikuntzak, kuxinak, etab.)

Erabiltzen ditudan jarduerari dagokienez, lehen esan dudan bezala, ez daude jarduera zehatz batzuk, baizik eta APP-ren faseetan oinarritutako fase, material eta momentu ezberdinak non haurrak jolas espontaneoaren bidez irudimena garatzen joaten diren.

Covid19 gabeko egoera batean zenbat psikomotrizitate saio ditu talde bakoitzak astean? Nahikoa dela uste duzu?

Normalean 4 eta 5 urteko gelako umeek psikomotrizitate saio bakarra dute astean zehar. Maiztasuna talde pedagogikoaren arabera bada ere, Aucouturierrek 3-7 urte bitartean, 60-80 minutu arteko bi edo hiru saio astero egitea gomendatzen du, eta ni guztiz bat nator berarekin.

1.2. UMEEKIN SOLASALDIA

Jarduera bakoitzaren arabera, asanblada aprobetxatuz, hurrekin hitz egingo dugu gaiari buruz lortu dituzten jakintzak eta ez lortutakoak ezagutuz eta erregistroa eramanez. Horrez gain, jarduerarekin disfrutatu duten ala ez egiaztatuko da.

Ezin da honen inguruko galdetegi zehatz bat egin, egoeraren arabera, haiekin hitz eginez aterako dena transkribatuko da.

2. ERANSKINA:

IRAKASLEAREN EGUNEROKOAREN EREDUA

IRAKASLEAREN EGUNEROKOA

BEHAKETA DATA:

PARTAIDEAK:

EGOERA:

HAUSNARKETAK:

3. ERANSKINA: ESKU-HARTZEAREN SAIOAK

3.1. JARDUERA: “*HERRI BERRI IPUINA*”

Herri Berri, Steilas Sindikatuak LGTBIQ fobiaren kontrako eguna lantzeko sortutako ipuina da. Steilas Euskal Herriko Hezkuntzako langileen ezkerreko sindikatua da. Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan dihardute 1977-tik. Jarduera esparru laboraletik haratago daramate eta jendarte mugimenduekin elkarlanean aritzen dira eraldaketa soziala bultzatzeko.

Herri Berri ipuina moldatzea erabaki dugu, musika eta gorputz-adierazpenaren arlora eramateko asmoz. Horretarako, lehenengo egunean ipuina kontatuko diegu hurrei, baina amaierarik gabe, intriga eta jakin-min giroa sortaraziz. Horrez gain, azalduko diegu ipuin musikal bat landuko dugula, letra eta musika barnean dituen istorioa delako. Bigarren egunean, ipuina lehenengo eguneko puntu berdinerara arte kontatuko diegu, eta haiek izango dira amaiera asmatuko dutenak. Beraz, herri guztiak aurkeztu eta oso aspertuta daudela kontatu ondoren, sormena bultzatuz, ipuinerako bukaera ezberdinak asmatzen saiatuko gara eta denon artean egokiena aukeratuko dugu.

Jarduera honen **helburu nagusia** hurrek, irudimena garatzeko, ipuinerako bukaera ezberdinak asmatzea da. Horrez gain, arreta mantentzea eta hitz egiteko txandak errespetatzea.

Denbora eta **espazioari** dagokienez, jarduera bi egun ezberdinetan egingo da umeen gelan eta saio bakoitzak 20 minutu inguru iraungo du.

Ikasleen antolaketaren inguruan, jarduera honen saioak talde handian egingo dira.

Baliabide materialei dagokienez, Herri Berri ipuina eta kolore ezberdinetako gometsak erabiliko dira. **Giza baliabideak** ikasleak eta irakaslea.

Aniztasunaren trataera dela eta, gela honetan Hezkuntza Premia Bereziatako ikasle bat dago. Hortaz, jarduera honen helburua haur horrek ahalik eta denbora gehien arreta mantentzen saiatzea eta taldearen parte izatea da. Irakaslearen jarrerari dagokionez, garrantzitsua izango da ipuina kontatzean keinuak eta gorputz-adierazpena zaintzea, ahozko hizkuntzari lotuta joan daitezen saiatzeko eta harekiko komunikazio hori ez hausteko.

Irakaslearen rola ikasteko testuinguruak edo egoerak diseinatzeke bitartekaria, gidatzailea eta laguntzailea izatea izango da.

Ebaluazio teknikak behaketa zuzena eta sistematikoa eta umeein elkarrizketak izango dira.

Erabiliko diren **ebaluazio tresnak**, behaketarako taulak, irakaslearen egunerokoa eta umeein elkarrizketen transkripzioak dira.

Ebaluazio adierazleak hurrengoak izango dira:

- Ipuinerako bukaera ezberdinak asmatzen ditu, irudimena garatuz.
- Arreta jarraian mantentzen du gero eta denbora-tarte luzeagoetan.
- Elkarrizketa-arauak eta txandak betetzen ditu.

IRAKASLEAREN EGUNEROKOA

BEHAKETA DATA: 2021/03/08 eta 2021/03/09

PARTAIDEAK: Umeak eta irakasleak.

EGOERA: Herri Berri ipuinaren aurkezpena, lehenengo irakurketa eta amaieraren asmaketa.

HAUSNARKETAK: Orokorrean taldea nahiko adi egon da eta interesa erakutsi du. Haien arreta berenganatu dugu, batez ere ipuinean zehar dauden abestien bidez eta herri bakoitzeko kolorearen sudurra aldatzearen bidez. Oraindik letra ez jakin arren, gustura parte-hartu dute abestietan txaloak emanez eta erritmoa jarraitzen saiatuz. Amaiera ezberdinak asmatzeko momentuan, originalak izan diren erantzunak esan dituzte, baina betiere herri guztiak elkartu eta talde-lanean aritu behar direla buruan izanez. Hortaz, jardueraren helburua lortu dela esan daiteke.

UMEEKIN EGINDAKO SOLASALDIEN TRANSKRIPZIOAK

Haurrei ipuinaren amaiera pentsatzeko denbora utzi diegunean, hurrengo erantzunak jaso ditugu:

- Orkestra bat sortzea
- Musika-talde bat sortzea
- Elkarren artean musika-tresnak jotzen irakastea
- Guztiak elkartzea
- Instrumentuak haien artean aldatzea
- Zabuetara joatea

Horiek dira erantzunetako batzuk, baina gehienek bat egin dute herri guztiak elkartu beharko liratekeela esatean.

Horrez gain, ipuinean zehar agertu diren instrumentuak ezagutzen zituzten ume batzuk daude, haien ikaskideei nola jotzen diren azaldu dietenak.

- Klabeen azalpena: “bi palo dira elkarren kontra jotzen direnak”.
- Triangeluaren azalpena: “klin klin klin da bere soinua” (eta triangelua nola hartu eta jotzen den antzestu du).
- Kriskitinen azalpena: “kaskabelak dira” (eta keinu bat egin du nola jotzen diren azaltzeko).
- Danborra eta marakak denek ezagutzen zituztenez ez da haien inguruko azalpenik egon.

HERRI BERRI IPUINA





Bazen behin, **Herri Gorri** deituriko herria. Herri Gorriko biztanle guztiek, sudur gorria zuten. Asko gustatzen zitzaien musika, baina bakarrik zekiten **danborra** jotzen. (*Umeek eserita abesten dute eta kanta amaitzean, altxatzen dira eta danborra libreki jotzen dute.*)
(Doinua: “Alaiki” abestia - Ene Kantak

<https://www.youtube.com/watch?v=Nt93HJUJXOg&t=26s>).

Danborrak jotzen ditugu
Guk besterik ez dakigu
Danborrak jotzen ditugu
Herri Gorrian

(*Umeak hasperena eginda esertzen dira*).

Horregatik, Herri Gorri behin eta berriro danborraren soinua entzuteaz oso aspertuta bizi ziren.



Herri Gorri ondoan, bazen beste herri bat. **Herri Horia** deitzen zen, eta bertako laguntxoek, sudur horia zuten. Ez zen bizi sudur horia ez zeukan inor. Herri Horin ere oso gustuko zuten musika, baina jotzen zekiten gauza bakarra **klabeak** ziren. (*Umeek eserita abesten dute eta kanta amaitzean, altxatzen dira eta klabeak libreki jotzen dituzte.*)

Klabeak jotzen ditugu

Guk besterik ez dakigu

Klabeak jotzen ditugu

Herri Horian

(*Umeak hasperena eginda esertzen dira*).

Beraz, hemen ere behin eta berriro klabeen soinua entzuteaz kokoteraino bizi ziren.



Pixka bat urrutiago, jendea **Herri Berdean** bizi zen. Herri Berdeko biztanleek, sudur berdea zuten eta pilo bat gustatzen zitzaaien musika ere bai. Arazoa zen bakarrik zekitela **triangelua** jotzen. (*Umeek eserita abesten dute eta kanta amaitzean, altxatzen dira eta triangelua libreki jotzen dute.*)

Triangeluak jotzen ditugu

Guk besterik ez dakigu

Triangeluak jotzen ditugu

Herri Berdean

(*Umeak hasperena eginda esertzen dira*).

Horregatik, Herri Berden oso nekatuta eta triste zeuden denbora osoan triangeluaren soinua entzuteaz.



Handik oso gertu, **Herri Urdina** zegoen, eta bertan, lagun guztiek, sudur urdina zuten. Sudur urdineko laguntxo hauek ere oso musika zaleak ziren, baina ez zekiten **marakak** ez ziren beste ezer jotzen. *(Umeek eserita abesten dute eta kanta amaitzean, altxatzen dira eta marakak libreki jotzen dituzte.)*

Marakak jotzen ditugu
 Guk besterik ez dakigu
 Marakak jotzen ditugu
 Herri Urdinean

(Umeak hasperena eginda esertzen dira).

Hortaz, Herri Urdinen, beste herri guztietan gertatzen zen bezala, maraken soinua entzuteaz gogaituta eta oso goibel bizi ziren.



Azkenik, **Herri Morea** zegoen. Herri Morean, sudur morea zuten eta musika oso gustuko bazuten ere, soilik zekiten **kriskitinak** jotzen. (*Umeek eserita abesten dute eta kanta amaitzean, altxatzen dira eta kriskitinak libreki jotzen dituzte.*)

Kriskitinak jotzen ditugu

Guk besterik ez dakigu

Kriskitinak jotzen ditugu

Herri Morean

(*Umeak hasperena eginda esertzen dira.*)

Horren ondorioz, Herri Morean behin eta berriro kriskitinen soinua entzuteaz asper-asper eginda zeuden.



Baina egun batean, Herri Morean triste eta aspertuta egoteaz nekatu ziren, eta jai bat egitea erabaki zuten. Jai honetara herri guztietako jendea gonbidatu zuten, Herri Gorri, Herri Hori, Herri Berde eta Herri Urdineko lagun guztiak. Herri bakoitzak bere instrumentua eraman eta denak batera musika jotzen hasi ziren. Orduan, konturatu ziren guztiek elkarrekin sortutako soinua askoz ere alaiagoa eta dibertigarriagoa zela. Horrela, herri guztien laguntzarekin instrumentu-talde bat sortu zuten eta “txaranga” deitu zioten. Horrez gain, jotzen zuten bitartean, musikaren erritmora mugitzen ziren, herri moreko kaleak haien dantzekin estaliz.

Herri Morean ospatutako jaietan hain ondo pasatu zuten denek, egun horretatik aurrera herri guztietan edozein pertsona eta edozein instrumentu sartzeko eta bizitzeko aukera izan zutelako, guztiak nahastuta, elkarrekin eta poz-pozik.

(*Takolo, Pirritx eta Porrotx-en “Txaranga” kanta - <https://www.youtube.com/watch?v=OdI6m7dA9wo> abestu, instrumentuekin jo eta dantzatu.*)

3.2. JARDUERA: “MUSIKA-TRESNAK EZAGUTZEN”

Ipuinari lotuta, musikako ikasgaien dituzten aurrezagutzak aprobetxatuz, musika saio batean Herri Berri ipuina eta honetan agertzen diren instrumentuak gogoraraziko ditugu. Bi orri erabiliz, lehenengoan instrumentuei buruz zer dakiten, eta bestean haiei buruz ikasi nahi dutena idatziko dugu. Perkusiozko musika-tresnak ipuinean agertzen direnak, gehien ezagutzen dituztenak eta hurbilen dituztenak direnez, haiekin hasiko gara. Haurrek dituzten jakintzetatik abiatuz, eskuragarri ditugun musika-tresna guztiak jo eta haien soinua ezberdina dela konturatuko dira, orduan, arbelean itsatsiko ditugu ezagutzen dituzten instrumentu guztien irudiak (bai perkusiozkoak, eta ezagunak egiten zaizkien haizezko eta harizkoak ere bai) eta sailkapen bat egingo dugu.

Hortik abiatuta, instrumentu bakoitzaren soinuaren inguruan hausnartzen hasiko gara: soinu bakoitza ateratzeko zer egin behar den, zergatik ateratzen duten soinu hori, nola entzuten dugun bakoitza... Momentu horretan, instrumentu ezberdinen inguruko eta jotzeko moduaren inguruko azalpen txiki bat emango zaie (igurtziz jotzen diren musika-tresnak, kolpatuz jotzen direnak, putz eginez...) Beraz, konklusio batera ailegatuko gara: hiru musika-tresna mota daudela (harizkoak, haizezkoak eta perkusiozkoak), eta bakoitza modu ezberdin batean jotzen dugula. Horrez gain, instrumenturen bat jotzen duen familia kideren bat duten edo pertsonaren bat ezagutzen duten galdetuko zaie. Ezagutzekotan, Covid19-aren egoera ez balego, pertsona horri eskolara etortzeko eta umeen aurrean bere instrumentuak aurkezteko eta pixka bat jotzeko eskatuko litzaioke. Kasu honetan, hori egitea ezinezkoa denez, bideo bat grabatzea eta emailez bidaltzea eskatuko zaio.

Hala ere, gu perkusiozko tresnetan zentratzen jarraituko gara. Horretarako, perkusiozko tresnen bideo batzuk aurkeztuko dizkiegu, non instrumentu bakoitzaren itxura eta soinua argi ikusi eta entzun ahal izango duten. Gainera, entzumen-bereizketa ere landuko dugu, entzuten ari diren musika-tresna zein den asmatu behar duten bideo baten bidez. Amaitzeko, ariketa bera egingo dugu baina haien parte-hartze aktiboarekin. Hau da, haietako batek perkusiozko tresna bat joko du eta gainerakoek, begiak itxita dituztela, asmatu behar izango dute ze tresna jo duen haien kideak.

Perkusio instrumentuen inguruko gustua eta jakin-mina piztu ostean, proposatuko zaie ikasitako eta ipuinean agertutako musika-tresnekin txaranga bat egitea. Gero, Herri Berri ipuinaren antzezpena egin ahal izateko. Dena den, guk esan baino lehen, txaranga sortzeko ekimena izan dutenak haiek izatea saiatuko ginanteke.

Jarduera honen **helburu nagusia** hurrek musika-tresnen ezaugarriak ezagutzea, horiek sailkatzea eta soinuak desberdintzen jakitea da; gozaten duten eta hitz egiten daudenak errespetatzen dituzten aldi berean. Horrez gain, IKT-en erabilera ikusle moduan sustatzen denez, hauen bidez ikastea eta informazioa jasotzeko baliabide erabilgarria dela konturatzen hastea.

Denbora eta espazioari dagokienez, musika gelan egiteko jarduera aproposa litzateke hau, baina ikastetxe honetan HH-n ez dutenez musika saiorik jasotzen, gelan egingo da. Beraz, hiru edo lau egun ezberdinetan egingo dugu eta 20-25 minutu inguru iraungo du saio bakoitzak.

Ikasleen **antolaketaren** inguruan, jarduera honen saio guztiak talde handian egingo dira.

Baliabide materialei dagokienez, eskolan eskuragarri dauden harizko, haizezko eta perkusiozko instrumentuak, arbela, klarionak, instrumentuen irudiak, eta bideoak ikusteko ordenagailua eta arbela digitala erabiliko ditugu. **Giza baliabideak** ikasleak, irakaslea eta familiak izango dira.

Aniztasunaren trataera dela eta, gela honetan Hezkuntza Premia Bereziako ikasle bat dago. Hortaz, jarduera honen helburua musika-tresnak manipulatzeko, soinua eta isiltasuna ezberdintzea eta gozatzea izango da. Irakaslearen jarrerari dagokionez, garrantzitsua izango da keinuak eta gorputz-adierazpena zaintzea, ahozko hizkuntzari lotuta joan daitezen saiatzeko eta harekiko komunikazio hori ez hausteko.

Irakaslearen rola ikasteko testuinguruak edo egoerak diseinatzeko bitartekaria, gidatzailea eta laguntzailea izatea izango da.

Ebaluazio teknikak behaketa zuzena eta sistematikoa eta umeekin elkarriketak izango dira.

Erabiliko diren **ebaluazio tresnak**, behaketarako taulak, irakaslearen egunerokoa eta umeekin egindako solasaldien transkripzioak dira.

Ebaluazio adierazleak hurrengoak izango dira:

- Gai da musika-tresnak eta haien ezaugarriak desberdintzeko.
- Musika-tresna batzuen soinua bereizten du.
- Perkusiozko instrumentuen inguruko gustua eta jakin-mina piztu zaio.
- Elkarrizketa-arauak eta txandak betetzen ditu.
- IKT-en erabilerarekin gozaten du.

IRAKASLEAREN EGUNEROKOA

BEHAKETA DATA: 2021/03/10 eta 2021/03/11

PARTAIDEAK: Umeak eta irakasleak.

EGOERA: Musika-tresnekin lehenengo kontaktua, instrumentuen manipulazioa, soinu-bereizketan murgiltzen hasi eta txaranga egin nahi dugula erabaki.

HAUSNARKETAK: Denbora faltagatik eta umeen arreta eta interesa berenganatzeko luzeegia izateagatik, egun baterako prestatuta zegoen saioa bi egunetan banatu behar izan dugu. Orokorrean jarduera gustatu zaie, baina instrumentuak manipulatu nahi zituztenez urduri jarri dira eta batzuk arreta galdu dute. Horrek, momentu batzuetan txandak edota arauak ez errespetatzea eragin du. Haietako askok gaiaren inguruan aurrezagutzak zituzten arren, ez zekizkiten hainbat ideia zeuden, horregatik haien ikaskuntzarako jarduera aberasgarria izan dela pentsatzen dut. Hala ere, kontzeptu ezberdin asko dira hain denbora gutxitan ikasteko, eta 5 urteko haurrentzako teoria moldatzen saiatu bagara ere, nire ustez, jarduera batzuk konplexuegiak izan dira. Dena den, hainbat musika-tresnen ezaugarriak eta soinuak ezberdintzeko helburuak bete direla esan daiteke. IKT-en erabileraren aldetik, baliabide egokia izan da arbela digitala erabiltzea zenbait momentutan haien arreta berenganatzeko. Azkenik, txaranga bat egin nahi zutela esatea nahiko kostatu da. Irakasleok hartu behar izan dugu ekimena eta haiek pozik onartu dute.

Instrumentuen tinbrea ezagutzeko bideoa:

<https://youtu.be/NRzqghwgl3M>

Entzumen-diskriminaziorako jolasa:

<https://www.youtube.com/watch?v=gxeUdCy1ZcQ>

FAMILIEI BIDALTZEKO EMAIL-A, HAIEN PARTE-HARTZEA ESKATZEKO:

Kaixo familiak,

Ipuin musikalen eta musika-tresna ezberdinen inguruko proiektu batean lan egiten ari gara. Horregatik, gustatuko litzaiguke haurren familiako kide batek instrumentu bat jotzen badaki, bideo labur bat grabatzea eta emailez bidaltzea. Modu horretan, guztiok batera gelan ikusi ahalko genuke, instrumentu horri buruz motibazio handiagorekin ikasiz.

Aldez aurretik eskerrik asko,

HH 5-ko irakasleak.

UMEEKIN EGINDAKO SOLASALDIEN TRANSKRIPZIOAK

Instrumentuei buruz zer dakiten eta zer jakin nahi duten galdetu diegunean, hurrengo erantzunak jaso ditugu:

Zer dakigu?

- Jotzeko dira
- Musika egiten dute
- Dantzatzeko dira
- Nire osabak etxean ditu
- Nik pianoa jotzen dakit
- Instrumentua jotzeko putz egin behar da

Zer jakin nahi dugu?

- Nola jotzen dira
- Nola deitzen dira
- Zenbat pisatzen dute
- Gitarra jotzen ikasi
- Zergatik putz egitean ateratzen dute soinua?

Instrumentu bakoitzaren soinua inguruan hausnartu dugunean, gelako haur batek piano klaseetara doala esan du eta besteei azaldu die soinua ateratzeko teklak kolpatu behar direla, baina irekitzen bada barrutik hariak dituela. Beste batzuen artean perkusiozko tresnak kolpatzen jotzen direla konturatu dira, eta beste batek bere aitak gitarra jotzen duela kontatu du eta horretarako eskua erabiltzen duela kordak mugitzeko eta soinua ateratzeko. Azkenik, haizezko instrumentuak putz eginez ateratzen dutela soinua komentatu dute. Gehienek gitarra eta danborra haien musika-tresnarik gogokoenak direla esan dute.

JARDUERA EGITEKO ERABILITAKO TXARTELAK

 <p>DANBORRA</p>	 <p>PANDEROA</p>	 <p>METALOFONOA</p>	
 <p>KLABEAK</p>	 <p>TRIANGELUA</p>	 <p>KRISKITINAK</p>	 <p>PANDERETA</p>
 <p>MARAKAK</p>	 <p>KASKABILOAK</p>	 <p>TXALAPARTA</p>	 <p>KLARINETEA</p>

 <p>TXIRULA</p>		 <p>HARMONIKA</p>	
 <p>AKORDEOIA</p>	 <p>TXISTUA</p>	 <p>TRONPA</p>	 <p>TRONPETA</p>
 <p>ALBOKA</p>	 <p>SAXOFOIA</p>	 <p>BIOLINA</p>	 <p>HARPA</p>



HARI-INSTRUMENTUAK



HAIZE-INSTRUMENTUAK



PERKUSIO-INSTRUMENTUAK

3.3. JARDUERA: “NI NAIZ NIRE ISTORIOAREN PROTAGONISTA”

Musika, mugimendua eta gorputz-adierazpena uztartzen dituen jarduera honi hasiera emateko, taldea korroan jesarriko da eta bakoitzak bere pertsonaia erabakiko du. Esaterako, dinosaurioak, tximeletak, ninjak... Irudimena jokoan sartuz, norberak nahi duen pertsonaia eta honen izaera eta jokatzeko modua hautatzeko askatasuna izango du. Adibidez, batzuk botere majikoak izan ditzakete, beste batzuk ez, hegan egin dezakete...

Umeez, aukeratutako pertsonaia hauek musika dagoen bitartean antzesten hasiko dira. Horretarako, gelak nahikoa espazio izan behar du eta ez da estropezu egin ahal diezaiekeen ezer egon behar. Mugitzen hasi ahala, euren pertsonaien inguruan euren istorioak eta gertakizunak garatzen doaz, helduaren inongo zehaztapenik gabe. Horrela, gorputz-adierazpenaz, mugimenduaz eta irudimenaz baliatuz, haurra haren istorioa sortzen hasiko da pertsonaiarekin jolasten duen bitartean.

Bat-batean musika geldituko da eta argiak itzaliko dira, narratzaileak gaua, iluntasuna eta misterioa datozela azalduz. Orduan, tentsioa sortaraziko duen musika hasiko da. Iluntasunetik eta etorriko den otsoarengandik babesteko dauden baliabideak estatuak bezala geldirik mantentzea edo izara baten azpian sartzea izango dira. Gauaren ondoren, kontalariak pixkanaka-pixkanaka eguzkia berriro irteten ari dela eta egunsentia datorrela

azalduko du. Momentu horretan, argiak piztu eta beste musika berriro hasiko da, haien pertsonaiak antzeztera bueltatuz eta istorioarekin jarraituz. Ez dira zertan indibidualki aritu behar, agian bikoteka edo taldeka hasi daitezke antzezten, istorio berdinen parte izanda.

Irakasleak zertzelada batzuekin lagundu dezake istorioan, hau pixka bat bideratuz, baina beti umeak istorioaren protagonistak izanik eta askatasunez haien istorioak eta pertsonaiak sormenez asmatzeko aukera eskainiz. Irakaslearen papera gidatzailea eta laguntzailea da, hain zuzen ere.

Azkenik, musika gelditu eta denak korroan eseriko dira, saioa amaitutzat emanaz.

Dinamika honi esker, umeek istorioaren garapenean parte-hartuko dute, haiek izanik istorioa sortzen dutenak. Hau da, ez da helduak kontatzen duen istorio zuzen bat, baizik eta umeen partaidetzarekin, modu sortzailean, egituratzen den istorio aberasgarri bat. Gainera, umea parte hartzaile sentituko da, protagonistaren abenturak bideratuko dituelako, horrek gertakizunei eta soinuei, adi eta gogotsu egotea eraginez.

- Jarduerarako erabiliko den musika: <https://www.youtube.com/watch?v=AxYRVoGVTYI>
- Gaua denean erabiliko den musika: <https://www.youtube.com/watch?v=FdlONYj7Sq0>

Jarduera honen **helburu nagusia** musika, mugimendua eta gorputz-adierazpenaren bitartez sormena eta irudimena garatzea eta sentimenduak eta emozioak adieraztea da; gorputzaren kontrola hobetuz, mugimenduen koordinazioa eta oreka mantenduz eta disfrutatuz.

Denbora eta **espazioari** dagokienez, jarduera hau psikomotrizitate gelan egingo da, eta 20-25 minutu inguru iraungo du. Aukera badago, aproposa litzateke behin baino gehiagotan errepikatzea, hurrek dinamika guztiz ondo ulertu eta barneratu dezaten.

Ikasleen antolaketaren inguruan, jarduera honen saioa talde handian egingo da, baina haur bakoitzak erabakiko du banaka, binaka edo taldeka jardun nahi duen ekintzan zehar.

Baliabide materialei dagokienez, oihalak edo izarak eta musika jartzeko mugikorra eta bozgorailua izango dira. **Giza baliabideak** ikasleak eta irakaslea izango dira.

Aniztasunaren trataera dela eta, gela honetan HPB behar dituen ikasle bat dago. Hortaz, jarduera honen helburua mugimendu libreaz gozatzea izango da, eta iluntasuna isilik eta geldirik geratzearekin, eta argia, mugitzearekin erlazionatzea izango da.

Ebaluazio teknikak behaketa zuzena eta sistematikoa, eta jarduera eta gero haurrekin egindako asanblada izango dira, non bakoitzari nola sentitu den espresatzeko aukera emango zaion.

Erabiliko diren **ebaluazio tresnak**, behaketarako taulak, irakaslearen egunerokoa eta umeek asanbladan kontatutakoaren transkripzioak dira.

Irakaslearen papera gidatzailea eta laguntzailea da, hain zuzen ere.

Ebaluazio adierazleak hurrengoak izango dira:

- Ea umeak gero eta gehiago kontrolatzen duen gorputza, bai mugimenduan, bai geldirik dagoenean.
- Haurra gai da gorputza-adierazpenaz eta irudimenaz baliatuz, bere beharrianak, emozioak, bizipenak, sentsazioak eta gogoak adierazteko.
- Ea taldearen proposamenetan gogoz parte hartzen duen eta gozatzen duen.

IRAKASLEAREN EGUNEROKOA

BEHAKETA DATA: 2021/03/16

PARTAIDEAK: Umeak eta irakasleak.

EGOERA: Sormena garatuz; haurrek sentitzen dutena eta nahi dutena gorputzarekin adierazi, musikarekin konektatu eta mugimendua baliabide bezala indartu.

HAUSNARKETAK: Haurrek oso ondo hartu dute jarduera hau. Oso lotsatia eta barnerakoia den ume bat izan ezik, beste guztiek gustura parte hartu dute eta disfrutatu dute. Hasieratik ulertu dute jarduera, eta berehala hasi dira haien pertsonaiak erabakitzen eta istorioan murgiltzen. Gehienak bikoteka edo talde txikietan aritu dira, eta batzuk hainbeste identifikatu dira haien pertsonaiekin, haien keinuak eta mugimenduak imitatu dituztela. Modu horretan, beldurra, poztasuna edota tristura bezalako emozioak adieraziz.

Gaua iritsi denean sortarazi den tentsioagatik eta iluntasunagatik, pare bat ume pixka bat beldurtu dira eta ez dute oso ondo pasatu. Gainerakoek jolasean barneratuta jarraitu dute, baina batzuk oihuka eta korrika hasi dira eta momentu batean dinamikaren kontrola galdu da. Hala ere, nire ustez, orokorrean nahiko ondo atera den jarduera izan da. Nire iritziz, behin baino gehiagotan errepikatu ahalko litzatekeen jarduera da hau, modu horretan, sormena eta irudimena lantzeko, haurrei esperimendatzeko aukera emateko eta haien gorputzaz eta mugimenduaz gozatzeko.

3.4. JARDUERA: “PERKUSIO TXIKIKO TRESNEKIN ERRITMOA LANTZEN”

Perkusio txikiko tresnetara hurbiltzeko jarduera honi esker, instrumentuak gehiago ezagutzeaz gain, musikarekin kontaktuan jarraituz, erritmoa eta koordinazioa ere landuko dute ikasleek.

Perkusio txikiko tresnak aurkeztu ostean eta haiek zeintzuk ezagutzen dituzten eta nola jotzen diren eztabaidatu ostean, haur bakoitzari instrumentu bat emango diogu. Instrumentu berdinen arabera taldeak sortuko ditugu eta tresna berdina duten guztiak elkarrekin eseriko dira, horrela argiago entzungo dute haien instrumentua eta gutxiago nahasiko dira.

Jardueraren helburuetako bat musika sentitzea eta honekin konektatzea denez, ikasleei hori transmititzen saiatuko gara. Abestia jarri eta erritmoa jarraituz, instrumentua noiz eta nola joko luketen galdetuko diegu, guk ere adibideren bat emanez. Proposamenak entzun ondoren, instrumentuak nola joko ditugu adostuko dugu. Behin erritmoa denok argi izanda, irakasleak “orquestra zuzendari” papera hartu eta momentuaren arabera talde bakoitzari jotzeko esango dio. Amaieran denok batera joko dugu, orkestra bat sortuz. Modu horretan, denok elkarrekin jotzen dugunean abestia askoz ere aberasgarriagoa entzuten dela konturatuko dira.

Bideoa:

- <https://www.youtube.com/watch?v=eU6fKeRBRPc>

Abestiak:

- <https://www.youtube.com/watch?v=qi8txwDOQvI> (Clap clap sound)
- https://www.youtube.com/watch?v=cDvbGon1b_I (Addams familia)

Jarduera honen **helburu nagusia** hurrek musika sentitzea eta honekin konektatzea da, erritmoa eta koordinazioa garatzen duten bitartean. Horrez gain, guztien artean helburu komun bat gauzatzeko gai direla konturatzea ere lortu nahi da, lankidetzaren garrantzia indartuz. Beste helburu bat IKT-en erabilera ikusle moduan sustatzen denez, ikasteko eta informazioa jasotzeko baliabide erabilgarria dela konturatzen hastea da.

Denbora eta **espazioari** dagokienez, gelan egingo da eta 30 minutu iraungo du.

Ikasleen antolaketaren inguruan, saioa talde handian egingo da.

Baliabide materialei dagokienez, perkusio txikiko tresnak, ordenagailua eta arbela digitala dira. **Giza baliabideak** ikasleak eta irakaslea izango dira.

Aniztasunaren trataera dela eta, gela honetan Hezkuntza Premia Bereziakoko ikasle bat dago. Hortaz, jarduera honen helburua musika-tresnak manipulatzeko eta musikaz gozatzeko da. Horrez gain, taldeko partaidea izatea eta jardueran gustura parte-hartzea.

Irakaslearen papera ikasteko egoerak diseinatzeko bitartekaria, gidatzailea eta laguntzailea izatea izango da.

Ebaluazio teknikak behaketa zuzena eta sistematikoa dira.

Erabiliko diren **ebaluazio tresnak**, behaketarako taulak eta irakaslearen egunerokoa dira.

Ebaluazio adierazleak hurrengoak izango dira:

- Musika sentitzen du eta honekin gozatzen du.
- Ea erritmo errazak errepikatzen dituen.
- Ea taldeko jardueran gustura parte hartzen duen, elkarlana sustatzen.
- Ea interesa erakusten duen musika tresnekiko.
- Instrumentuak jotzeko txandak errespetatzen ditu.

IRAKASLEAREN EGUNEROKOA

BEHAKETA DATA: 2021/03/17

PARTAIDEAK: Umeak eta irakasleak.

EGOERA: Haurrentzako motibagarria eta deigarria den bideo eta abesti batzuen bidez, musika-tresnak jo eta erritmoa landu. Amaieran instrumentu guztiak elkartuz orkestra egin. Horrez gain, musika-tresnak eta sortutako egoera aprobetxatuz, Herri Berri ipuineko txarangaren entseguak egin da.

HAUSNARKETAK: Jardueraren eredia ikusteko erabilitako bideoa motibagarria eta erabilgarria izan da, alai izateaz gain, erritmoak oso modu sinple batean jarraitzea ahalbidetu duelako. Hortik abiatuz, haurrak gai izan dira perkusiozko instrumentu ezberdinekin abestien erritmoak jarraitzeko. Nire ustez, jarduera askoz hobeto aterako litzateke behin baino gehiagotan errepikatuko balitz. Baina hala ere, haur gehienak erritmoak jarraitzeko gai izan dira eta jarduerarekin disfrutatu dute. Denbora faltagatik, instrumentuak libreki haiek nahi duten moduan jotzeko aukera gutxi izan dugu. Hurrengorako garrantzitsua iruditzen zait haiek instrumentuak nahi duten moduan jotzeko denbora gehiago uztea. Haurrek jarrera bikaina izan dute eta oso ondo errespetatu dituzte txandak, jotzeko momentuan, baita isilik egon behar izan direnean. Horrek, lankidetzaz sustatuz, "orkestra" bat sortzea ahalbidetu du. Azkenik, polita litzateke ikasleek ere "orkestra zuzendariaren" papera hartzea.

3.5. JARDUERA: “KUTXA MAGIKOAREKIN IRAKURTZEN”

Idatzizko hizkuntzara hurbiltzeko eta hitz idatzien arteko ezberdintasunak eta antzekotasunak hautemateko hurrengo jarduera egingo dugu:

Hiztegiaren letra guztiak apainduta dagoen kutxa baten barruan sartuko dira, eta haurrak korro batean eserita, musika jarrita dagoen bitartean kutxa magikoa haien artean pasatzen joango dira. Musika gelditzen denean, kutxa eskuetan duen haurrak eskua barruan sartu eta begiratu gabe hartu duen txartelean ze letra dagoen esango du. Aurretik landu diren instrumentuen irudi batzuk korroaren erdian egongo dira, eta irudi hauetan instrumentuaren argazkia agertzeaz aparte, honen izena ere idatzita dago. Orduan, umeak atera duen letra horrekin hasten diren musika-tresna guztiak bilatu beharko ditu, eta ondoren gehien gustatzen zaionaren izena arbelean idatzi.

Jarduera honen **helburu nagusia** irakurketan eta idatzizko hizkuntzan murgiltzen hastea da, idazketaren funtzionamendua arakatzeko eta tresnak moduan erabiltzen hasteko.

Denbora eta espazioari dagokienez ikasgelan burutuko da eta 30 minutu iraungo du.

Ikasleen **antolaketaren** inguruan, jarduera honen saioa talde handian egingo da.

Baliabide materialei dagokienez, kutxa magikoa, klarionak, musika jartzeko ordenagailua, musika-tresnen irudien txartelak eta hizkiak idatzita dauden txartelak beharko dira.

Giza baliabideak ikasleak eta irakaslea dira.

Aniztasunaren trataera dela eta, gela honetan HPB-ko ikasle bat dago. Hortaz, jarduera honen helburua taldearen parte sentitzea eta musikarekin eta kutxa pasatzeko jolasarekin gozatzea izango da.

Irakaslearen papera ikasteko testuinguruak edo egoerak diseinatzeko bitartekaria, gidatzailea eta laguntzailea izatea izango da.

Ebaluazio teknikak behaketa zuzena eta sistematikoa dira.

Erabiliko diren **ebaluazio tresnak**, behaketarako taula eta irakaslearen egunerokoa dira.

Ebaluazio adierazleak hurrengoak izango dira:

- Hitz idatzien arteko ezberdintasunak eta antzekotasunak hautematen ditu.
- Ikasgelan irakurtzeko eta idazteko egiten diren proposamenetan parte-hartzen du eta horiekiko interesa adierazten du.

- Jolasaren txandak errespetatzen ditu.

Denbora falta dela eta, jarduera hau ez da egin. Ondorioetan honen inguruko azalpen sakonagoak ageri dira.

3.6. JARDUERA: “INSTRUMENTU GEOMETRIKOAK”

Matematika-adierazpen aukerak lantzeko eta objektuen ezaugarriak deskribatzeko jarduera hau egingo dugu: Herri Berri ipuinean landutako perkusiozko musika-tresnak aprobetxatuz, haien ezaugarri batzuk aipatuko ditugu (kolorea, tamaina, forma), eta formak irudi geometrikoekin erlazionatuko ditugu. Adibidez, triangelua triangelu batekin, kriskitinak eta marakak esferekin, edota bongoak eta klabeak zilindroekin. Horrez gain, forma geometriko bakoitzeko, egunerokotasunean ikusten ditugun beste zenbait objektu bilatu beharko dituzte.

Jarduera honen **helburu nagusia**, alde batetik, objektuen ezaugarriak deskribatzeko ahozko-hizkuntza erabiltzea da. Eta beste aldetik, objektuen ezaugarriak identifikatzea eta bereiztea da.

Denbora eta **espazioari** dagokienez, jarduera hau haurren gelan egingo da, eta 20 minutu inguru iraungo du.

Ikasleen antolaketaren inguruan, jarduera honen saioa talde handian egingo da.

Baliabide materialei dagokienez, perkusiozko musika-tresnak eta forma geometrikoen txartelak erabiliko ditugu. **Giza baliabideak** ikasleak eta irakaslea izango dira.

Aniztasunaren trataera dela eta, gela honetan HPB behar dituen ikasle bat dago. Jardueretan ahalik eta parte-hartze handiena izan dezan saiatu arren, jarduera honetan parte-hartzea oso konplexua ikusten dugu. Hortaz, bera gelan ez dagoen momentuan egiten saiatuko gara.

Ebaluazio teknikak behaketa zuzena eta sistematikoa dira.

Erabiliko diren **ebaluazio tresnak**, behaketarako taulak eta irakaslearen egunerokoa dira.

Irakaslearen papera ikasteko testuinguruak edo egoerak diseinatzeko bitartekaria, gidatzailea eta laguntzailea izatea izango da.

Ebaluazio adierazleak hurrengoak izango dira:

- Objektuen ezaugarriak bereizten eta identifikatzen ditu (forma, kolorea, tamaina).

- Forma geometrikoak musika-tresnekin eta inguruan dituen gainerako objektuekin erlazionatzen ditu.
- Ahozko-hizkuntza espresatzeko erabiltzen du.

Denbora falta dela eta, jarduera hau ez da egin. Ondorioetan honen inguruko azalpen sakonagoak ageri dira.

3.7. JARDUERA: “PANDERO JOLEAREKIN DANTZAN”

Hurrek erritmoa lantzen jarraitu dezaten, ondo pasatzen duten bitartean, irakasleak panderoa jotzen duen aldi berean mugitu behar diren jarduera hau egingo dugu. Irakasleak azkarrago, motelago, jarraian, isiluneekin... joko du panderoa, eta umeak mugituko dira ibiliz, saltoka, korrika, geldirik... erritmoa jarraituz. Panderoaren soinua gelditzen denean, umeak geldirik geratu beharko dira oreka eta postura mantenduz panderoaren soinua berriro hasten den arte. Jolasaren dinamika ulertu dutenean, haurrak izango dira pandero jolearen papera hartuko dutenak, horrela haien ikaskideak gidatuz eta bururatzen zaien moduan erritmoa markatuz.

Jarduera honen **helburu nagusia** hurrek erritmoak jarraitzea da. Horrez gain, gorputza kontrolatzeko bidea aurkitzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa testuinguruaren ezaugarrietara egokitzea.

Denbora eta espazioari dagokienez, jolastokian egingo da eta 10-15 minutu iraungo du.

Ikasleen **antolaketaren** inguruan, jarduera honen saioa talde handian egingo da.

Baliabide materialei dagokienez, erabiliko den material bakarra panderoa izango da.

Giza baliabideak ikasleak eta irakaslea dira.

Aniztasunaren trataera dela eta, gela honetan Hezkuntza Premia Bereziaketako ikasle bat dago. Hortaz, jarduera honen helburua panderoaren soinua dagoenean mugitu behar dela jakitea eta isiltasuna dagoenean aldiz, geldi geratzearekin erlazionatzea izango da.

Irakaslearen papera gidatzailea eta laguntzailea izango da.

Ebaluazio teknikak behaketa zuzena eta sistematikoa dira.

Erabiliko diren **ebaluazio tresnak**, behaketarako taula eta irakaslearen egunerokoa dira.

Ebaluazio adierazleak hurrengoak izango dira:

- Erritmoak jarraitzen ditu.
- Gorputza gero eta gehiago kontrolatzen du, bai mugimenduan, bai geldirik dagoenean.
- Jolas-arauak eta txandak errespetatzen eta betetzen ditu.

IRAKASLEAREN EGUNEROKOA

BEHAKETA DATA: 2021/03/12

PARTAIDEAK: Umeak eta irakasleak.

EGOERA: Panderoa jo eta soinuak markatzen duen erritmora mugitu.

HAUSNARKETAK: Oso erantzun ona izan duen jolasa izan da. Hurrek hasieratik oso ondo ulertu dituzte azalpenak, eta orokorrean une oro errespetatu dituzte arauak eta txandak. Nire iritziz, azalpen eta arau laburrak eta argiak izateak asko lagundu du horretan. Guztiek pandero jolea izan nahi zuten, motibatuta egon dira haien txandaren zain eta haien ikaskideak errespetatu dituzte, gero haiek ere errespetatuak izateko. Panderoarekin markatutako erritmoak nahiko ondo jarraitu dituzte, eta asko gustatu zaie isilunea zegoenean “estatua” bezala gelditzea. Nire ustez, horrek tentsio on pixka bat sortarazi du jolasean. Ikasle batzuek erritmoa markatzean sormenaz baliatu dira eta haiei bururatu zaizkien mugimenduak egin dituzte, hala nola, makurtuta, saltoka, korrika... Atal honetan batzuk beste batzuk baino arazo gehiago izan dituzte, zenbait kasutan koordinazio falta egon delako panderoa jotzean eta mugimenduak egitean. Dena den, guztiz ulergarria da gauza asko direlako aldi berean egiteko. Gainera, haur guztiek jarrera ona izan dute eta ahalik eta hoberen egiten saiatu dira.

3.8. JARDUERA: “ASPERTUTA NAGO”

Gaur egungo haurrak oso okupatuta eta lanez eta jardueraz gainezka bizi dira. Horren ondorioz, uneren bat libre dagoenean, ez dute jakiten nola kudeatu, eta arreta eskatzen dute edo aspertzen direla esaten dute. Asperdurak haurraren sormena, pentsamendu propioa eta autonomia garatzen laguntzen du, eta haren kabuz irtenbideak eta alternatibak bilatzen laguntzen dio. Gainera, asperdurak segurtasun handiagoa sortaraziko dio haurrari, frustrazioa onartzen ikasten duen aldi berean. Asperdura sormenaren ataria da; izan ere, haurrak, aspertu egiten den denbora hori erabili behar du sortzeko eta asmatzeko. Hau da, asperduratik abiatuta, zerbait modu aktiboan sortzeko desioak, sortzailea izateko gaitasun hori garatzen laguntzea dio umeari.

Aspertzearen emozioan bete-betean murgiltzeko, lehenik eta behin minutu eta erdi irauten duen musika klasikoko pieza bat entzungo dugu:

https://www.youtube.com/watch?v=5r8sa863Ts&feature=emb_title

Musika entzun eta gero zer iruditu zaien eta zer sentitu duten galdetuko diegu. Nahiko pieza klasikoa, geldoa eta tristea denez, ziur bat baino gehiagori asperdura edo tristura transmitituko diela. Hortik abiatuta, asperduraren emozioa lantzen hasiko gara, Herri Berri ipuinean zehar sentimendu nabarmenatarikoa baita.

Gaiarekin jarraitzeko, “Estoy aburrido” ipuina irakurriko dugu, Moses Brian-ek idatzia eta “Albatros” argitaletxeak argitaratutakoa (nahiz eta gazteleraz egon, bideoko bolumena kendu eta euskaraz kontatuko dugu):

https://www.youtube.com/watch?v=aRZlhtE6_5I

Istorio honen bidez gaiari sakondu, emozioak landu eta aspertzea onuragarria edo kaltegarria den inguruan hausnartuko dugu. Horrez gain, aspertuta gaudenean zer egiten dugun eta ez aspertzeko zer egin dezakegun ere komentatuko dugu.

Galderak hurrengoak izango dira:

- Gogoratzen duzue aspertuta egon zareten momenturen bat? Nola sentitu zineten?
- Zer egin zenuten aspertuta ez egoteko?
- Ze beste ekintza egin ahal zituen ipuineko protagonistak ez aspertzeko?
- Asperdura ona edo txarra da?

Azkenik, denon artean orrialde batean idatziko ditugu ez aspertzeko bururatzen zaizkigun jarduerak.

Jarduera honen **helburu nagusia** hurrek zer emozio eta sentimendu dituzten ezagutzea eta horietaz jabetzea da, Horrela, elkarrizketetan parte hartuz eta komunikazio arauak errespetatuz. Horrez gain, IKT-en erabilera ikusle moduan sustatzen denez, hauen bidez musika eta ipuinak entzuteko baliabide erabilgarria dela konturatzen hastea.

Denbora eta **espazioari** dagokienez, jarduera umeen gelan izango da eta saioak 30 minutu inguru iraungo du.

Ikasleen antolaketaren inguruan, jarduera honen saioa talde handian egingo da.

Baliabide materialei dagokienez, ordenagailua eta arbela digitala erabiliko dira “Estoy aburrido” ipuina eta musika klasikoko pieza entzuteko, eta orriak eta errotulkiak asperdurari buruzko hausnarketarako. **Giza baliabideak** ikasleak eta irakaslea dira.

Aniztasunaren trataera dela eta, gela honetan Hezkuntza Premia Bereziakoko ikasle bat dago. Hortaz, jarduera honen helburua musika eta ipuina entzuten dugun bitartean adi egoten saiatzea izango da.

Irakaslearen rola ikasteko testuinguruak edo egoerak diseinatzeko bitartekaria, gidatzailea eta laguntzailea izatea izango da.

Ebaluazio teknikak behaketa zuzena eta sistematikoa eta umeekin elkarrizketak izango dira.

Erabiliko diren **ebaluazio tresnak**, behaketarako taulak, irakaslearen egunerokoa, umeekin egindako elkarrizketen transkripzioak eta umeekin idatzi ditugun orriak dira.

Ebaluazio adierazleak hurrengoak izango dira:

- Gai da sentimenduak eta emozioak ezagutzeko eta bereizteko.
- Askotariko komunikazio-estrategiak erabiltzen ditu (hitzezkoak, gorputzaren erabilera, musika...), bere beharrianak, emozioak, bizipenak, sentsazioak eta gogoak adierazteko.
- Taldeko jardueretan parte hartzen du.
- Elkarrizketa-arauak eta txandak betetzen ditu.
- IKT-en erabilerarekin gozaten du.

Denbora falta dela eta, jarduera hau ez da egin. Ondorioetan honen inguruko azalpen sakonagoak ageri dira.

3.9. JARDUERA: “ESKUINEKO ESKUA ETA EZKERREKO ESKUA”

Talde-lanaren eta berdinen arteko lankidetzaren gaian sartzeko, “Eskuineko eskua eta ezkerreko eskua” ipuina irakurriko dugu:

<https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/37042/reirmeeus.pdf/46e104a3-7ff7-4f8f-a6c5-50e269c40a2b> (24-25orr.)

Eskuineko eskua eta ezkerreko eskua oso adiskide txarrak ziren. Ezkerreko eskuari laztan egitea gustatzen zitzaion; eskuinari, berriz, atzamarka egitea. Eskuineko eskuari idaztea gustatzen zitzaion; ezkerrekoak, berriz, nahiago zuen pianoa jo. Eta zer esanik ez botoi bat lotu behar zutenean... Hortaz, ez ziren sekulan konforme jartzen eta ezin zuten inoiz ezer ongi egin.

Egun batean, beheko solairuan bizi zen haien adiskideak, espagetiak jatera gonbidatu zituen. Ah! Ez dut esan: biei ala biei, eskuinari eta ezkerri, izugarri gustatzen zitzairen espagetiak jatea. Eta nori ez? Tomatez beteta, gazta urtua gainetik...

Baina badakizue zer gertatzen den... Espagetiak jateko esku biak behar izaten direla. Orduan, kasu honetan, ezkerrek koilarari eutsi behar zion eta eskuinak sardexkari, espagetiari buelta emateko. Momentu horretan, ezkerrek esan zuen:

–Ezta pentsatu ere. Oraingoan nik hartuko dut sardexka.

Eta eskuinak:

–¿Ah, bai? Orduan nik koilara hartuko dut.

Baina eskuinak ez zekien koilara ondo hartzen eta ezkerrek ez zekien sardexkari heltzen. Hortaz, jaten hasi bezain laster, espageti guztiak lurrera erori zitzaizkien. Eskuina goitik behera zikindu zen tomatez eta ezkerre sardexkarekin ebaki bat egin eta negarrez hasi zen.

Haien laguna izugarri haserretu zen eta esan zien:

– Aski da bikote, beti berdin zabilzate! Ez zarete konturatzen ze garrantzitsua den lagunak izatea eta batak beste laguntzea? Bi eskuak beharrezkoak zarete! Bestela... nola lotuko dituzue botoiak? Eta lokarriak? Edo nola jango dituzue espagetiak?

Orduan bi eskuek pentsatzen hasi ziren eta konturatu ziren talde-lanean aritzen baziren eta elkar laguntzen bazuten askoz ere gauza gehiago egiteko gai izango zirela eta zoriontsuago biziko zirela. Eta geroztik aurrera beti daude pozik eta batera.

Ipuina irakasleak antzeztuko du, kolore ezberdinetako eskularruak jarritz, horrela kolore bakoitza esku batekin erlazionatuz. Hurrei, eskularruen kolore berdineko gometsa jarriko zaie esku bakoitzean.

Ipuina amaitzean, espagetiak ondo jan ahal izateko eta haien arteko gatazkak konpontzeko zer egin zezaketen komentatuko dugu. Horrez gain, hainbat galdera egingo zaizkie: Ze gauzak egiten ditugu bi eskuak erabiliz? (botoiak lotu, lokarriak lotu, motots bat egin, gidatu, txalotu, josi, instrumentuak jo...) Zer gertatuko litzateke esku bakoitzak nahi duena egingo balu?

Ipuin honen bidez, landu ditzakegu mahaian jateko arauak, gorputzaren koordinazioa, gatazkak konpontzearen beharra, pertsona eskuinak eta ezkerak izan gaitezkeela, lateralitatea (eskuina eta ezkerre), sentimenduak eta lankidetzak.

Jarduera honen **helburu nagusia** talde lana eta berdinen arteko lankidetzak sustatzea da. Horrez gain, mahaian jateko arauak, koordinazioa, lateralitatea, gatazkak konpontzearen beharra, sentimenduak eta pertsona eskuinak eta ezkerak izan gaitezkeela ere lantzea.

Denbora eta **espazioari** dagokienez, jarduera umeen gelan egingo da, 30 minutu inguruko saio batean.

Ikasleen antolaketaren inguruan, saioa talde handian egingo da.

Baliabide materialei dagokienez, gometsak, eskularruak, koilara, sardexka eta espagetiak antzezteko artilea erabiliko dira. **Giza baliabideak** ikasleak eta irakaslea dira.

Aniztasunaren trataera dela eta, gela honetan Hezkuntza Premia Bereziakotako ikasle bat dago. Hortaz, jarduera honen helburua lateralitatea eta esku-koordinazioa lantzen saiatzea eta ipuinarekin gozatzea izango da. Harekiko irakaslearen jarrerari dagokionez, ezinbestekoa da keinuak eta gorputz-adierazpena zaintzea, ahozko hizkuntzari lotuta joan daitezkeen eta komunikazio hori ez hausteko.

Irakaslearen papera ikasteko testuinguruak edo egoerak diseinatzeko bitartekaria, gidatzailea eta laguntzailea izatea izango da.

Ebaluazio teknikak behaketa zuzena eta sistematikoa eta umeekin elkarriketak izango dira.

Erabiliko diren **ebaluazio tresnak**, behaketarako taulak, irakaslearen egunerokoa eta umeekin elkarriketen transkripzioak dira.

Ebaluazio adierazleak hurrengoak izango dira:

- Laguntza harremanak eta talde lankidetzarako gaitasuna garatzen ditu.

- Ea umeen artean gatazkak sortzen direnean konpontzearen beharra adierazten duen.
- Sentimenduak eta emozioak ezagutzeko eta bereizteko bidea egiten du (amorrua).
- Espazio-nozioak erabiltzen ditu bere burua eta objektuak kokatzeko.
- Gero eta denbora-epe luzeagotan mantentzen du arreta komunikazio-egoeretan.
- Elkarrizketa-arauak eta txandak betetzen ditu.

IRAKASLEAREN EGUNEROKOA

BEHAKETA DATA: 2021/03/18

PARTAIDEAK: Umeak eta irakasleak.

EGOERA: Eskuineko eskua eta ezkerreko eskuaren ipuina irakurri, eta lankidetzaren inguruan hausnarketa egin. Horrez gain, jardueran zeharkako modu batean agertzen diren beste zenbait gairi buruzko lanketa (mahaian jateko arauak, koordinazioa, lateralitatea, gatazkak konpontzearen beharra, sentimenduak, etab.).

HAUSNARKETAK: Ipuina antzezten kontatzeak jarduera arrakastatsua izatea eragin du. Haurrak istorioak ipuin fisikoekin entzutera ohituta daudenez, koloretako eskularruak jartzea, istorioa antzezte eta ipuinean agertzen diren materialak erabiltzea (espagetiak, sardexka, koilara...) guztiz erakargarria izan da haientzat eta horrek, ia une oro guztiek arreta mantentzea eragin du. Jarduera osoan zehar, oso giro atsegina sortu da, eta hurrek gustura parte-hartu dute tokatzen zitzaienean.

Ipuina eta gero egindako solasaldian, argi geratu da guztiek ulertu dutela ipuinaren mezua eta ez zaiela kostatu lankidetzaren balorea identifikatzea eta goraiatzea. Gainera, ipuin honen harira gelako harremanen barruan amorruren emozioa eta gatazka-konponketa gehiago lantzen hasiko da. Amaitzeko, esan daiteke ipuinaren mezuak eta antzezpenak garrantzia kendu diotela lateralitatearen kontzeptuari eta pentsatzen genuena baino garrantzi gutxiago eman zaiola.

UMEEKIN EGINDAKO SOLASALDIEN TRANSKRIPZIOAK

Ipuina amaitzean, espagetiak ondo jan ahal izateko eta haien arteko gatazkak konpontzeko zer egin zezaketen komentatu dugu eta denek egin dute bat bi eskuak lagunak egin behar zirela esatean, elkarki barkamena eskatu behar ziotela esatean eta gauzak ondo egin ahal izateko haien artean lagundu behar zirela esatean.

Horrez gain, hurrengo galderei emandako erantzunak hauek dira:

Ze gauzak egiten ditugu bi eskuak erabiliz?

- Botoiak lotu
- Lokarriak lotu
- Orraztu
- Pianoa jo
- Jantzi
- Margotu eta moztu
- Jan
- Saskibaloian jolastu

Zer gertatuko litzateke esku bakoitzak nahi duena egingo balu?

- Espagetiak erortzen direla
- Labana ondo hartzen ez bada arriskutsua da, moztu ahal zara
- Ezin ditugu lokarriak/botoiak lotu
- Gauzak erortzen zaizkigula
- Ezin dugula jan

Horretaz aparte, haur batek esan zuen berak horrela jaten dituela espagetiak eta besteei azaldu zien koilarekin lagunduz errazagoa dela. Pianoa jotzen duen haur batek eta saskibaloira jolasten duen beste batek nabarmendu zuten esku bakarra erabiliz oso zaila izango litzatekela ekintza horiek egitea. Azkenik, ezkertiarra den ume bat konturatu zen eta korroan azaldu zuen bera bai izango litzatekela gai ezkerrekin ondo jateko, eta orduan, komentario hori aprobetxatuz ezkertiarak diren pertsonen inguruan hitz egin genuen.

3.10. JARDUERA: “JAUSGAILUAREKIN LANKIDETZA JOLASAK”

Jausgailu batez baliatuko gara talde-lanean oinarritutako jolas hauek burutzeko. Jolas kooperatiboak, helburu komuna lortzeko asmoz, ematean eta jasotzean funtsatzen diren jolasak dira. Haurrak kooperazioaren eta laguntza ematearen eta jasotzearen garrantziaz konturatzea nahi dugu. Horretaz aparte, komunikazioa, kohesioa, enpatia eta konfiantza bultzatzen dituzte jolas hauek. Hainbat balio ikasteaz gain, oso garrantzitsua da ere motibazioa eta dibertsioa sustatzea. Horretarako hurrengo jolasak egingo ditugu:

- **Pilotak gidatu:** hasteko, haur guztiak jausgailuaren inguruan jarri eta honi helduko diote. Pilota bat erdira botako da eta denen artean jausgailua mugituz pilota hori erdiko zulotik sartu dadin ekidin beharko dute. Ondoren, zailtasuna handitu eta bi pilotekin egingo da jolasa. Orduan, bi pilotak elkartu ez daitezen eta haietako bat zulotik sartzen eta bestea kanpoan uzten saiatu beharko dira.
- **Katua eta sagua:** sagua den pertsona jausgailuaren azpian sartuko da eta lau hankatan jarrita behetik ibiliko da. Katua aldiz, jausgailuaren gainetik ibili behar da eta sagua harrapatu behar du. Gainerakoak, jausgailua heltzen egongo dira eta hau mugituz, saguari katuarengandik ihes egiten lagundu beharko diote, hau da, jausgailua mugitzen aritu beharko dira katuak sagua ez ikusteko eta ez harrapatzeko.
- **Marrazoa eta sorosleak:** Bainulariak lurrean eseriko dira, hankak jausgailuaren azpitik dituztela. Marrazoa ere jausgailuaren azpitik joango da, bainulariak harrapatu nahian. Orduan, marrazoak bainu-hartzaileak hanketatik hartu eta jausgailuaren barrura sartu behar ditu. Jausgailuaren barruan sartzen den mundu guztia marrazo bihurtuko da eta besteak harrapatzen hasiko da ere bai. Sorosleak hori saihesten saiatu beharko dira.

Jarduera honen **helburu nagusia**, talde espiritua bultzatzen den bitartean, haurrak kooperazioaren eta laguntza ematearen eta jasotzearen garrantziaz konturatzea da. Horrez gain, haien artean komunikazioa, kohesioa, enpatia eta konfiantza bultzatzea ondo pasatzen duten bitartean.

Denbora eta **espazioari** dagokienez, jolasak psikomotrizitate gelan egingo dira. Hiru egun ezberdinetan egingo dugu eta 15-20 minutu inguru iraungo du saio bakoitzak.

Ikasleen antolaketaren inguruan, jarduera honen saio guztiak talde handian egingo dira.

Baliabide materialei dagokienez, jausgailua eta pilotak erabiliko ditugu. **Giza baliabideak** ikasleak, eta irakaslea izango dira.

Aniztasunaren trataera dela eta, gela honetan Hezkuntza Premia Bereziakoko ikasle bat dago. Beraz, jarduera honen helburua ematearen eta jasotzearen garrantziaz jabetzen hastea da, talde-lanaz disfrutatzen duen aldi berean.

Irakaslearen papera ikasteko testuinguruak edo egoerak diseinatzeko bitartekaria, gidatzailea eta laguntzailea izatea izango da.

Ebaluazio teknikak behaketa zuzena eta sistematikoa.

Erabiliko diren **ebaluazio tresnak**, behaketarako taulak eta irakaslearen egunerokoa eta umeekin elkarrizketen transkripzioak dira.

Ebaluazio adierazleak hurrengoak izango dira:

- Helburu komun bat lortzeko, kooperazioaren eta laguntza ematearen eta jasotzearen garrantziaz konturatzen da.
- Besteenganako konfiantza eta besteekiko enpatia garatzen hasten da.
- Ea jardueretan parte hatzen duen gozatzen duen bitartean.

Denbora eta baliabide falta dela eta, jarduera hau ez da egin. Ez zegoen jausgailurik. Ondorioetan honen inguruko azalpen sakonagoak ageri dira.

3.11. JARDUERA: "HERRI BERRI GARA"

Proposamen didaktikoan zehar esan dugun moduan, jarduera guzti hauek Herri Berri ipuina antzetzeko eta edukiak eta mezua ondo ulertzeko prozesua izan dira. Behin guztiak eginda, azken jarduera egitera pasatuko gara, hau da azkenengo atazara. Horretarako, ikasleak instrumentu eta herrien arabera sailkatuko ditugu. Herri bakoitzak abesten duen kanta eta amaierako txaranga sortzeko kanta, prozesuan zehar hainbat alditan entzungo dugu, ikasten joateko. Antzezpena egiteko leku handia behar denez, batzuetan gelan entseiatuko dugu, eta beste batzuetan, psikomotrizitate gelan.

Irakasleak narratzailearen papera izango du. Honek istorioa kontatzen joan ahala, haurrak esandakoa interpretatzen joango dira. (Kotatzeak ipuinaren gidoian azaltzen dira). Emanaldiaren egunean, haur bakoitzari bere herriaren koloreaz margoztuko zaio sudurra, eta herriarekin identifikatzeko, ahal bada kolore horretako arropa edo apaingarriren bat ekarriko du.

Covid19-aren egoera dela eta, ume bakoitza, antzetzten duen herriak duen kolore berdineko uztai baten barruan eseriko da, bere taldeko guztiekin borobil bat sortuz. Horrela, taldeen arteko distantzia mantenduko da. Covid gabeko egoera batean, antzezpen bat beste talde batzuen aurrean egingo litzateke, baina kasu honetan, familia guztien baimenarekin bideo bat grabatuko da, gero familiei edota ikastetxeko beste taldeei bidaliko zaiena.

Jarduera honen **helburu nagusia** hurrek dramatizazioa, dantza eta gorputz-adierazpena lantzen den jolas-jardueretan parte hartzea da. Horrez gain, antzezpenez, musikaz eta dantzaz gozatzea ere lortu nahi da, haien artean errespetua eta komunikazioa sustatzen den aldi berean.

Denbora eta **espazioari** dagokienez, psikomotrizitate gelan egingo da. Beraz, hiru edo lau egun ezberdinetan egingo ditugu entseguak, eta 30 minutu inguru iraungo du saio bakoitzak. Azken egunean antzezpena grabatuko dugu.

Ikasleen antolaketaren inguruan, jarduera honen saio guztiak talde handian egingo dira.

Baliabide materialei dagokienez, instrumentuak, uztaileak, sudurrak margozteko margoak, bideoa grabatzeko kamera eta bozgorailua erabiliko dira. **Giza baliabideak** ikasleak, irakaslea eta grabatuko duen beste irakasle bat dira.

Aniztasunaren trataera dela eta, gela honetan Hezkuntza Premia Bereziakotako ikasle bat dago. Hortaz, harekiko jarduera honen helburu nagusia, musika-tresna joz eta dantzatuz jardueraz gozatzea da.

Irakaslearen papera, narratzailea, laguntzailea eta gidatzailea izango da.

Ebaluazio teknikak behaketa zuzena eta sistematikoa dira.

Erabiliko diren **ebaluazio tresnak**, behaketarako taulak, irakaslearen egunerokoa eta grabatutako bideoa dira.

Ebaluazio adierazleak hurrengoak izango dira:

- Dramatizazioan gustura parte hartzen du.

IRAKASLEAREN EGUNEROKOA

BEHAKETA DATA: 2021/03/22 – 26 astea.

PARTAIDEAK: Umeak eta irakasleak.

EGOERA: Herri Berri ipuin musikalaren entseguak eta azken antzezpena.

HAUSNARKETAK: Martxoak 22tik 26ra arteko astean, behin baino gehiagotan irakurri edo gogorarazi dugu Herri Berri ipuina eta askotan abestu dugu abestia. Hurrei lehenengo momentutik deitu die arreta ipuinak musika izatea, eta asko gustatu zaie abestia. Izan ere, haiek eskatu dute behin baino gehiagotan abesteko eta haietako batzuk etxean edo haien kabuz ere abesten aritu dira. Nire ustez, kantaren doinua eta letra nahiko gogora erraza eta errepikakorra da, eta horrek umeek abestia ondo barneratzea eragin du.

Horrez gain, astean zehar bi aldiz joan gara psikomotrizitate gelara musika-tresnekin ipuin musikal osoa entseiatzera. Hirugarren aldian, ostiralean, “benetako” antzezpenaren eguna izan da. Horretarako, haurrei sudurra haien herriko koloreaz margoztu diegu eta azkenean uztailak ez ditugunez erabili, kolore bakoitzeko borobil batzuk egin ditugu klarionekin lurtean umeak barruan sartzeko haien herriak izango balira bezala. Antzezpena grabatu dugu, gero klasean ikusteko eta familiei bidaltzeko.

Narratzailearen paperari dagokionez, musukoa eraman arren, ahalik eta gehien saiatu naiz ahotsa proiektatzen eta bai ahotsaz eta gorputz-adierazpenaz baliatuz, adierazgarria izaten, haurren arreta deitzeko eta ipuina ulergarria eta entretenigarria izateko. Ikasleen erantzuna ikusita eta gainerako irakasleen feedback-a entzunda gutxi gora behera lortu dudala uste dut. Hala ere, beti dago hobetzeko zerbait eta nire ustez, pixka bat lasaiago eta astiroago hitz egiten saiatu behar naiz, askotan urduritzen bainaiz eta arinegi hitz egiten hasten naiz.

Nire iritziz eta irakasleen iritziz, bai entseguetan zehar eta baita azken antzezpenean oso pozik egon dira haurrak eta asko disfrutatu dute. Gehienak erritmoa jarraitzeko gai izan dira, gorputz-adierazpenaz baliatuz nahi izan duten moduan mugitu dira eta aurrean esan dudan moduan, istorioa ulertu eta abestia ikasi dute. Istorioa ipuin formatuan kontatzen hasteak eta marrazkiak erabiltzeak asko erraztu ditu gauzak, istorioa ulertteraza eta gogoratzeko errazagoa eginez. Gainera, ipuina beti da umei asko gustatzen zaien zerbait, eta ondo pasatzeko eta edozer ikasteko baliabide bikaina.

Jarduera polita izan da, non ikaskuntza-prozesu bat bizi izan duten antzezpena, “azken produktura” iritsi diren arte. Salbuespenak salbuespen, nahiko kontzentratuta egon dira une oro eta narratzaileak esaten zuena antzeztzen saiatu dira. Esaterako, “asper-asper” eginda esatean, asperdura aurpegia jarri edo arnasotsa ateratzen zuten. Edo pozik zeudela esatean pozik aurpegia jarri eta iribarre egiten zuten.

Amaitzeko, zalantzarik gabe gehien gozatu dituzten atalak musika izan dituztenak eta libreki aritu direnak izan dira, hau da, herri bakoitzak gorputz-perkusioarekin abestutako abestia, azkeneko txarangaren kanta eta dantza, eta musika-tresnak nahi izan duten moduan jotzeko momentua. Laburbilduz, nire aburuz, jarduera-prozesu honen bidez argi geratu da ipuina ikaskuntza-baliabide aproposenetariko delatzen eta musika ezinbestekoa dela haurren ikaskuntzan eta garapen-prozesuan. Hortaz, prozesu osoaren emaitza ikusita ipuin musikalaren garrantzia azpimarratzea lortu dugu eta ziur orain, gehiago baliatuko direla musika-baliabideaz, mugimenduaz eta gorputz-adierazpenaz edozer egiterako orduan.

4. ERANSKINA:

HERRI BERRI PROIEKTUAREN TAULA

PROIEKTUAREN IZENA: HERRI BERRI

IKASTURTEA: 2020/21

MAILA: HH 5 URTE

ARAZO-EGOERA: Egun batean, haurrak klasera iristen dira eta musika-tresnaz betetako kutxa bat aurkitzen dute. Hartu eta oso pozik hasten dira jotzen, iskanbila handia sortuz. Egoera aprobeztatuz eta aurretik irakurri dugun Herri-Berri ipuinetik abiatuta, instrumentuak jotzen ikasteko eta talde bat (txaranga) osatzeko gai garen pentsatzeko dugu.

JUSTIFIKAZIOA: Haurren interesa eta instrumentuak manipulatzeko gogoia izan dira arrazoi nagusiak, baita lankidetzaren inguruko kontzientzia sortzeko ideiarena ere.

XEDEA: Musikaz eta mugimenduaz gozatuz ipuin musikal baten proposamenaren onurak aztertzea, lankidetzaren kontzientzia garatzen den aldi berean.

ATAZA: Herri Berriren ipuin musikalaren antzezpena egitea, txaranga bar sortuz.

DENBORALIZAZIOA: Otsaila-Martxoa

HERRI BERRI					
OINARRIZKO KONPETENTZIAK	HELURU OROKORRAK	HELURU DIDAKTIKOAK	EDUKIAK	JARDUERAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
<p><u>OINARRIZKO ZEHAR KONPETENTZIAK</u></p> <p>-Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.</p> <p>- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.</p> <p>-Elkarbizitzarako konpetentzia.</p> <p>-Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.</p> <p>-Norbera izaten ikasteko konpetentzia.</p>	<p><u>NORTASUNAREN ERAIKUNTZA ETA INGURUNE FISIKOAREN ETA SOZIALAREN EZAGUERA</u></p> <p>2) Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka eta koordinazioa, ekintzetan dituen ahalmenak eta mugak deskubritzeko.</p> <p>3) Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimenduak, jolasa, arakatzeko-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko.</p>	<p>-Ipuinerako bukaera ezberdinak asmatzea, irudimena garatuz. - Musika-tresnen ezaugarriak ezagutzea. -Musika-tresnak sailkatzea eta soinuak desberdintzen jakitea. - Musika-tresnen erabilerarekin gozatzea.</p> <p>-Erritmo errazak errepikatzea.</p> <p>-Gero eta denbora-epe luzeagotan arreta mantentzea komunikazio egoeretan.</p> <p>-Elkarrizketa-arauak eta txandak betetzea.</p> <p>-Ekintzetan parte hartzea.</p> <p>-IKT-en erabilera ikusle moduan sustatzea, hauen bidez ikastea eta informazioa jasotzeko baliabide erabilgarria dela konturatzen hastea.</p> <p>-Sentimenduak eta emozioak ezagutzea eta adieraztea.</p> <p>-Musika, mugimendua eta gorputz-adierazpenaren bitartez sormena eta irudimena garatzea. - Gorputzaren koordinazioa eta oreka hobetzea.</p>	<p>-Abestiak eta ipuinak</p> <p>-Instrumentuen ezaugarriak</p> <p>-Perkusiozko instrumentuak</p> <p>-Instrumentuen soinuak bereiztu</p> <p>- Instrumentuak sailkatu</p> <p>-Erritmoak jarraitu eta errepikatu</p> <p>-Arreta mantendu</p> <p>-Elkarrizketa eta jolas-arauak errespetatu</p> <p>-Ekintza eta jolasetan parte hartu</p> <p>-IKT-ak; arbela digitala, gelako ordenagailua</p>	<p>1.Hasierako fasea</p> <p>-Egun batean, haurrak klasera iristen dira eta musika-tresnaz betetako kutxa bat aurkitzen dute. Hartu eta oso pozik hasten dira jotzen, iskanbila handia sortuz.</p> <p><i>-Eztabaida:</i> Egoera aprobetxatuz eta aurretik irakurri dugun Herri-Berri ipuinetik abiatuta, instrumentuak jotzen ikasteko eta talde bat (txaranga) osatzeko gai garen pentsatuko dugu.</p> <p><i>-Zer dakigu instrumentuei buruz? Ikasleek dakitena orri batean idatzi.</i></p> <p><i>-Zer ikasi nahi dugu? Instrumentuei buruz ikasleek zer ikasi nahi duten idatzi.</i></p> <p><i>-Zer da ipuin musikala?</i></p> <p>-Ipuinaren amaiera asmatu</p> <p>-Musika gela balego, musika gelara joan instrumentuak ikustera.</p>	<p>-Ipuinerako bukaera ezberdinak asmatzen ditu, irudimena garatuz.</p> <p>-Gai da musika-tresnak eta haien ezaugarriak desberdintzeko.</p> <p>-Musika-tresna batzuen soinua bereizten du.</p> <p>-Perkusiozko instrumentuen inguruko gustua eta jakin-mina piztu zaio.</p> <p>-Interesa erakusten du musika tresnekiko.</p> <p>-Musika sentitzen du eta honekin gozaten du.</p> <p>-Erritmo errazak errepikatzen ditu.</p> <p>-Arreta jarraian mantentzen du gero eta denbora-tarte luzeagoetan.</p> <p>-Elkarrizketa, jolas arauak eta txandak betetzen ditu.</p>

<p><u>OINARRIZKO KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK</u></p> <p>-Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia.</p> <p>-Konpetentzia sozial eta zibikoa.</p> <p>-Konpetentzia motorra.</p> <p>-Arterako konpetentzia.</p> <p>-Matematikarako konpetentzia.</p> <p>-Teknologiarako konpetentzia.</p> <p>-Zientziarako konpetentzia.</p>	<p>5) Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea, norberaren jokabidea erregulatu eta norberaren eta gainerako pertsonen beharrianetara egokitzeko, eta sumisio nahiz nagusitasuneko jarrerak baztertzea.</p> <p>9) Gailu teknologikoak erabiltzen hastea eta haien komunikazio-ahalmena balioestea, eta arian-arian, haiek informazioa eskuratzeko, ikasteko eta plazerra lortzeko erabiltzea.</p> <p>11) Arian-arian, gizartean jokatzeko oinarritzko jarraibideak barneratzea eta norberaren portaera jarraibide horietara moldatzea, gero eta modu egoki eta orekatuagoan.</p> <p><u>NORTASUNAREN ERAIKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA ETA ADIERAZPENA</u></p> <p>1) Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-</p>	<p>-Taldea lana eta berdinen arteko lankidetzaren sustatzea.</p> <p>-Gatazkak konpontzearen beharra, adieraztea.</p> <p>-Umeen artean komunikazioa, kohesioa, enpatia eta konfiantza bultzatzea.</p> <p>-Idatzizko hizkuntzan eta irakurketan murgiltzen hastea.</p> <p>-Objektuen ezaugarriak deskribatzeko ahozko-hizkuntza erabiltzea.</p> <p>-Objektuen ezaugarriak identifikatzea eta bereiztea.</p> <p>-Sormena eta ekimena garatzea, material birziklatua erabiliz.</p> <p>-Ipuinaren dramatizazioan gogoz parte hartzea.</p>	<p>-Sentimenduak eta emozioak ezagutu eta adierazi</p> <p>-Sormena garatu</p> <p>-Jolasak</p> <p>-Ahozko hizkuntza ideiak adierazi eta komunikatu</p> <p>-Gorputz eta mugimenduaren adierazpena</p> <p>-Lankidetzaren konponketa</p> <p>-Taldearen enpatia eta konfidantza bultzatu</p> <p>-Idatzizko hizkuntzara eta irakurketara hurbilketa</p> <p>-Hitzak, hizkiak</p> <p>-Zenbakien grafia</p> <p>-Zenbakiak ordenatu</p>	<p>-Gurasoei oharra. Proiektuaren inguruko informazioa jasotzeko eta haien laguntza eskatzeko oharra idatzi eta bidali.</p> <p>2. Garapen fasea</p> <p>-Etxetik ekarritako materialaren aurkezpena: ipuinak, liburuak, argazkiak, instrumentuak...</p> <p>-Perkusiozko instrumentuak libreki manipulatu eta jo.</p> <p>-Arbela digitalean instrumentuen ezaugarrien bideoak ikusi.</p> <p>-Arbela digitalean perkusiozko instrumentuen erritmoak jarraitzeko bideoak ikusi.</p> <p>-“Aspertuta nago” ipuina irakurri sentimenduak eta emozioei buruz hitz egiteko.</p> <p>-”Ni naiz nire istorioaren protagonista” jolasa, irudimena eta sormena garatuz.</p> <p>-“Txaranga” abestia ikasi eta dantzatu.</p> <p>-“Alaiki” abestia hasi ikasten eta antzezten.</p> <p>-“Kutxa magikoaren” jarduerarekin irakurketa eta idatzizko hizkuntzan murgiltzen hasi.</p>	<p>-Taldekako jardueran gustura parte hartzen du .</p> <p>-IKT-en erabilerarekin gozatzen du.</p> <p>-Haurra gai da ahoz eta gorputz- adierazpenaz, bere beharrianak, emozioak, bizipenak, sentsazioak eta gogoak adierazteko.</p> <p>-Umeak gero eta gehiago kontrolatzen du gorputza, bai mugimenduan, bai geldirik dagoenean.</p> <p>-Laguntza harremanak eta talde lankidetzarako gaitasuna garatzen ditu.</p> <p>-Umeen artean gatazkak sortzen direnean konpontzearen beharra adierazten du.</p> <p>-Besteenganako konfiantza eta besteekiko enpatia garatzen hasten da.</p> <p>-Ikasgelan irakurtzeko eta idazteko egiten diren proposamenetan parte-hartzen du eta horiekiko interesa adierazten du.</p>
--	---	--	---	--	--

	<p>arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.</p> <p>2) Hizkuntza askotarikoen komunikazio-tresnak eskuratzeko bidea egitea eta tresna horiez gozatzea, norberaren egoera pertsonal, fisiko eta sozialeko beharrianak, sentimenduak eta bizipenak adierazi eta azaltzeko.</p> <p>3) Ahozko hizkuntza arian-arian erabiltzea eta balioestea norberaren portaera eta elkarbizitza erregulatzeko.</p> <p>4) Gainerako haurren eta helduen mezuak ulertzea eguneroko bizitzako egoeretan, eta hartu-eman horietako arauak ikastea, komunikatu nahi dena interpretatzeko.</p> <p>8) Hizkuntza idatziaren gizarte-arauak ikasten hastea, idazketaren funtzionamendua ikertzeko eta komunikatu, informatu eta gozatzeko tresna moduan balioesteko.</p> <p>9) Askotariko testuingurutan erabiltzea matematika-adierazpenak,</p>		<p>-Objektuen ezaugarriak: kolorea, forma...</p> <p>-Material berrerabiliaren erabilpena</p> <p>-Ipuinaren dramatizazioa</p>	<p>-“Letrak zenbatuz” jarduerarekin irakurketa, idatzizko hizkuntza eta matematika adierazpenetara hurbildu.</p> <p>-“Instrumentu geometrikoen” jarduerarekin perkusiozko musika-tresnen formak irudi geometrikoekin erlazionatu.</p> <p>-Ezkerreko eskua eta eskuineko eskuaren ipuina irakurri eta hitz egin lankidetzari buruz.</p> <p>3. Aplikazio fasea</p> <p>-Asanbladan, denon artean, instrumentuen ezaugarriak zeintzuk diren bildu eta ikasi duguna txandaka kontatu.</p> <p>-Ume batek perkusiozko tresna bat joko du eta gainerakoek, begiak itxita dituztela, asmatu behar izango dute ze tresna jo duen haien kideak.</p> <p>-“Pandero jolearen” jardueran haurrek erritmoak jarraitu eta gorputza eta oreka kontrolatu.</p> <p>-“Jausgailuarekin lankidetzaren jolasak” jardueran talde espiritua, kooperazioa, konfiantza eta enpatia bultzatu.</p>	<p>-Objektuen ezaugarriak bereizten eta identifikatzen ditu (forma, kolorea, tamaina).</p> <p>-Forma geometrikoak musika-tresnekin eta inguruan dituen gainerako objektuekin erlazionatzen ditu.</p> <p>-Sentimenduak eta emozioak ezagutzeko eta bereizteko bidea egiten du.</p> <p>-Material berrerabilia modu sortzailean erabiltzen du.</p> <p>-Gozatzen du jarduera plastikoak egiten.</p> <p>-Ipuinaren dramatizazioan gustura parte hartzen du.</p>
--	---	--	--	---	--

	<p>objektuen ezaugarriak deskribatzeko eta inguruneko egoerak interpretatu eta ulertzeko.</p> <p>10) Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilia, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.</p>		<p>-Perkusiozko instrumentuekin orkestra bat sortu denon artean.</p> <p>-Horma-irudi handi bat guztion artean egin, non herri bakoitzeko umeek haien instrumentua apainduko duten tokatzen zaien koloreaz.</p> <p>-Musika-tresnak berrerabiltzeko materialarekin sortu.</p> <p>-Familiak instrumentuak jotzen ekarri dituzten bideoak ikusi.</p> <p>-Txaranga bat sortu guztion artean.</p> <p>-Antzezipena egiteko lekua eta beharrezko material guztiak prestatu.</p> <p>-Herri Berriren antzezipena egin.</p> <p>4. Orokortze fasea</p> <p>-Pasabidean erakusketa bat egitea birziklatzeko materialarekin sortutako musika-tresna guztiekin, eskolako beste haur batzuk eta familiek ikus dezaten.</p> <p>-Antzezipenaren bideoa familiei eta Haur Hezkuntzako beste taldeei bidaltzea. Gelan ere haiek ikusteko aukera izatea.</p>	
--	---	--	---	--

5. ERANSKINA: PROIEKTUEN EBALUAZIOA ADIERAZLEEN EMAITZAK

EBALUAZIO ADIERAZLEAK	EMAITZAK ETA EBALUAZIOA
Ipuinerako bukaera ezberdinak asmatzen ditu, irudimena garatuz.	Amaiera ezberdinak asmatzeko momentuan, originalak izan diren erantzunak esan dituzte,
Arreta jarraian mantentzen du gero eta denbora-tarte luzeagotan.	Orokorrean taldea nahiko adi egon da eta interesa erakutsi du. Baina jarduera batzuk luzeegiak izatearen ondorioz, urdurik jarri dira edo aspertzen hasi dira eta arreta edota interes galdu dute. Kasuren batean, egun baterako prestatuta zegoen saioa bi egunetan banatu behar izan dugu.
Elkarrizketa-arauak eta txandak betetzen ditu.	Haurrek jarrera bikaina izan dute eta gehienetan oso ondo errespetatu dituzte txandak. Hala ere, estimulu edo mugimendu handiko jardueretan, txanden edo arauen errespetu hori pixka bat galdu da.
Taldeko jardueretan gustura parte hartzen du, elkarlana sustatuz.	Ikasle gehienek gogotsu parte hartu dute, haien motibazioa eta jarrera hobetuz. Oso lotsatia eta barnerakoia den ume bat izan ezik, beste guztiek gustura parte hartu dute eta konturatu dira talde-lanean arituz helburuak errazago lortzen direla.
Musika sentitzen du eta honekin gozatzen du.	Ipuinak musika izatea, lehenengo momentutik berenganatu du umeen arreta. Abestia gustuko izan dute eta azkar ikasi dute. Izan ere, haiek izan dira behin baino gehiagotan abestea eskatu dutenak. Haietako batzuk etxean edo haien kabuz ere abesten aritu dira. Horrek musika eta abestiekin gozatu dutela argi erakutsi du.

<p>Musika tresnekiko interesa erakusten du.</p>	<p>Instrumentu-familien inguruan ikasi dute eta perkusiozko musika-tresnak jotzea eta haiekin esperimentatzea asko gustatu zaie.</p>
<p>Erritmo errazak jarraitzen eta errepikatzen ditu.</p>	<p>Bai, egindako jardueren bidez, gai izan dira perkusiozko instrumentu ezberdinekin abestien erritmoak jarraitzeko.</p>
<p>Soinu desberdinak bereizten ditu.</p>	<p>Landutako perkusiozko instrumentuen soinuak ezberdintzeko gai direla esan daiteke. Haizezko eta harizko musika-tresnei dagokienez, batzuk bai eta beste batzuk ez.</p>
<p>Arte lanetan parte-hartze aktiboa duen, gozatzen duen bitartean.</p>	<p>Askotan landu ez diren arren, haurrek oso gustuko duten jarduerak dira, eta horregatik errefortzu-ariketa bezala planteatu dira.</p>
<p>Material berrerabilia modu sortzailean erabiltzen du.</p>	<p>Ez da landu eta errefortzu ariketa moduan proposatu da.</p>
<p>Umeen artean gatazkak sortzen direnean konpontzearen beharra adierazten du.</p>	<p>Hasieran ez zeuden oso ohituta arazoak konpontzeko hitz egitera. Gaia planteatutako jarduera batzuekin hasi da eta adostokiaren espazioa praktikan jarri ostean, arazoak konpontzeko erabiltzen hasi dira. Dena den, oraindik ere zaila egiten zaie gaia kudeatzea.</p>
<p>Gai da sentimenduak eta emozioak ezagutzeko eta bereizteko.</p>	<p>Sentimenduak eta emozioak bereizten eta identifikatzen hasi badira ere, oso gai konplexua da eta lantzen jarraitu behar da beti.</p>
<p>Laguntza harremanak eta talde-lankidetzarako gaitasunak garatzen ditu.</p>	<p>Lankidetzaren balorea askotan identifikatu eta goraiatu da. Hortaz, aurrera egin ahala eta irakaslearen laguntzaz, talde moduan lan egiten ikasten joan dira.</p>

<p>Besteenganako konfiantza eta besteekiko enpatia garatzen hasten da.</p>	<p>Balore horiek lantzen saiatu garen arren, haurrak txikiak direnean duten izaera egozentrikoaren ondorioz, pixkanaka-pixkanaka landuz hezkuntza-prozesu osoan zehar lortzen den zerbait da.</p>
<p>Ikasgelan irakurtzeko eta idazteko egiten diren proposamenetan parte-hartzen du eta horiekiko interesa adierazten du.</p>	<p>Asko landu ez bada ere, irakurketa eta idazketa jarduerengatik interesa erakusten duen taldea da.</p>
<p>Matematika-adierazpen batzuk erabiltzen ditu.</p>	<p>Honetan ere asko sakondu ez den arren, ia haur guztiek arazo barik egiten dituzte sailkapenak eta segidak, eta zenbakiak eta haien balioak ezagutzen dituzte, besteak beste.</p>
<p>Umeak gero eta gehiago kontrolatzen du gorputza, bai mugimenduan, bai geldirik dagoenean.</p>	<p>Batzuei beste batzuei baino zailagoa egin zaie, zenbait kasutan koordinazio falta egon baita.</p>
<p>IKT-en erabilerarekin gozatzen du.</p>	<p>Arbela digitala erabiltzea baliabide egokia izan da zenbait momentutan arreta berenganatzeko, haienzako tresna motibagarria da.</p>
<p>Dramatizazioan gustura parte hartzen du.</p>	<p>Bai entseguetan zehar eta baita azken antzezpenean haurrak oso pozik egon dira eta asko disfrutatu dute.</p>

Irakaskuntza-jarduera aztertuko da, hobetu daitezkeen irakaskuntza-/ikaskuntza-prozesuko alderdiak eraldatzeko.

	ALTUA	ERDIA	BAXUA
Curriculumean planteatutako helburuekiko koherentzia	X		
Helburu didaktikoen eta edukien hautaketa egokitzea	X		
Jardueren motibazio-maila	X		
Helburuen lorpen-maila	X		
Erabilitako materialen egokitzapena	X		
Programatutako denboren nahikotasuna		X	
Gelako komunikazio-giroa	X		
Ikasgelaren antolaketa eta eskura dauden baliabideen aprobetxamendua	X		
Aniztasunari erantzuteko neurriak		X	
Ikasleen parte-hartze maila	X		
Irakasleen gogobetetze-maila	X		

Pozik gaude proiektua aurrera eramatean lortutako helburuekin eta esku-hartzean egindako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuarekin.

6. ERANSKINA: HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Matematikarako konpetentzia, Zientziarako konpetentzia eta Arterako konpetentziaren barruan plastikarekin zerikusia duen guztia ez denez asko lantzen, hurrengo hiru jarduerak diseinatu ditugu:

6.1. JARDUERA: “MUSIKA-TRESNAK EGITEN”

Instrumentuak lantzen jarraitzeko eta umeei hainbeste gustatzen zaien arte hezkuntzaren arloa lantzeko, gure musika-tresna propioak sortuko ditugu. Horretarako, birziklatutako materialak (ontziak, kutxak, makilak, botilak, etab.), elikagai ezberdinak (dilistak, arroza, txitxirioak, makarroiak etab.) eta hauek manipulatzeko edo lantzeko baliabideak (puxikak, kordelak, tapoiak, itsasgarriak, artaziak, errotulkiak, paperak, gometsak, etab.) emango dizkiegu. Jarraibide bakarra, bakoitzak soinua ateratzen duen zerbeit sortzea da, horrela haien musika-tresna propioa eraikiz.

Jarduera honen bidez, materialek barruan dutenaren arabera soinua ezberdina atera dezaketela frogatzeaz gain, perkusiozko tresna guztiak bezala, kolpatzean soinua ateratzen dutela konturatzeko dira. Gainera, esperimendatzen duten bitartean, instrumentua sortzen eta manipulatu plastikaz gozatu eta birziklatzeko materialekin instrumentuak edo beste gauza asko sortu ditzaketela ikusiko dute.

Familiei laguntza eskatuko zaie, email baten bidez, etxetik beharrezko materiala ahal izatekotan ekartzeko eskatuz.

Jarduera honen **helburu nagusia** haurrek sormena eta ekimena garatzea da, material birziklatua erabiliz, bere berrerabilgarritasunaz konturatzeko. Horrez gain, soinua ezberdinak bereizten dituzten bitartean perkusiozko tresna guztiak, kolpatzean soinua ateratzen dutela konturatzeko.

Denbora eta **espazioari** dagokienez, jarduera umeen gelan egingo da, lau egun ezberdinetan eta ordu erdi iraungo du saio bakoitzak.

Ikasleen antolaketaren inguruan, jarduera honen saio guztiak talde txikian egingo dira. Horregatik, saio bakoitzean talde batek egingo du bere musika-tresna.

Baliabide materialei dagokienez, birziklatutako materialak (ontziak, kutxak, makilak, botilak, etab.), elikagai ezberdinak (dilistak, arroza, txitxirioak, makarroiak etab.) eta hauek manipulatzeko edo lantzeko baliabideak (puxikak, kordelak, tapoiak, itsasgarriak,

artaziak, errotulkiak, paperak, gometsak, etab.), izango dira, bai eskolan daudenak edo etxetik ekarritakoak. **Giza baliabideak** ikasleak, irakaslea eta familiak izango dira.

Aniztasunaren trataera dela eta, gela honetan Hezkuntza Premia Bereziako ikasle bat dago. Beraz, jarduera honen helburua, irakaslearen laguntzaz, musika-tresna egitea eta bere soinuaz gozatzea izango da.

Ebaluazio teknikak behaketa zuzena eta sistematikoa dira.

Erabiliko diren **ebaluazio tresnak**, behaketarako taulak eta irakaslearen egunerokoa dira.

Irakaslearen papera gidatzailea eta laguntzailea izango da.

Ebaluazio adierazleak hurrengoak izango dira:

- Material berrerabilia modu sortzailean erabiltzen ditu.
- Soinu desberdinak bereizten ditu.
- Arte lanetan modu aktiboan parte hartzen du.

FAMILIEI BIDALTZEKO EMAIL-A, HAIEN PARTE-HARTZEA ESKATZEKO:

Kaixo familiak,

Ipuin musikalen eta musika-tresna ezberdinen inguruko proiektu batean lan egiten ari gara. Horregatik, birziklatutako materialekin instrumentuak sortzea erabaki dugu. Horretarako, asko eskertuko genuke hurrengo egun hauetan gelara berrerabiltzeko materialak ekartzea. Esaterako, kutxak, jogurta ontziak, “Actimel” jogurten poteak, makilak, plastikozko botilak...

Aldez aurretik eskerrik asko,

HH 5-ko irakasleak.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia, haien musika-tresna propioak nola eraiki nahi dituzten pentsatzean landuko dute. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia jorratuko da, material guztien artean haiek bakarrik zeintzuk aukeratu eta haien instrumentua nola eraiki erabakiko dutelako. Zientziarako kompetentzia, bakoitzak bere instrumentua eraikitzen duenean lantzen da. Eta azkenik, arterako kompetentzia jarduera osoan zehar lantzen dela esan daiteke.

6.2. JARDUERA: “KOLORETAKO INSTRUMENTUAK”

Herri Berri ipuinean, kolore ezberdin batekin identifikatzen den herri bakoitzak instrumentu bat joko du. Ipuina errazago ulertzeko eta interpretatzeko musika-tresna eta herri horren kolorearen arteko erlazioa sortzea onuragarria izan daiteke. Modu horretan, koloreak eta elkarrekikotasuna landuko dira.

Jarduera honetarako, horma-irudi handi bat egingo dugu guztion artean, non herri bakoitzeko umeek haien instrumentua apainduko duten tokatzen zaien koloreaz. Adibidez, herri gorriak, danbor gorri bat margotuko du. Herri horiak aldiz, klabe horiak. Eta horrela talde eta instrumentu guztiekin. Hori egiteko material ezberdinak eskainiko zaizkie: margoak, errotulkiak, paperak, hariak, tenperak, oihalak, gometsak, etab. Eta talde bakoitzak nahi duen moduan bete ahal izango du bere instrumentua: marraka, puntuka, guztiz koloreztatuta, materialen arteko nahasketak eginez...

Jarduera honen aurretik, kolore primarioen lanketa eta kolore horien nahasketaren esperimentazioa egingo da. Horrela, bigarren mailako koloreak lortu daitezkeela konturatuko dira. Nahasketa horiek instrumentuak margotzeko erabili ahal izango dituzte.

Orduan, plastika-material ezberdinak eta lankidetzak lantzeko, haiek izango dira instrumentuak nola apaindu nahi dituzten erabakiko dutenak. Beraz, ados jarri beharko dira erabiliko dituzten materialak eta lan egingo duten modua erabakitzeko.

Amaieran, argi ikusiko da instrumentu bakoitzak ze kolore duen, eta ondorioz, ze herrirekin erlazionatzen den. Horrek ipuinaren antzezpena egiteko orduan, istorioa eta bakoitzaren rola argi izateko lagungarria izango zaie.

Jarduera honen **helburu nagusia** haurrek kolorea eta dagokion herria erlazionatzeko, jarduera plastikoaz gozatzea eta taldeak haien artean jarduera aurrera eramateko lankidetzak garatzea da.

Denbora eta **espazioari** dagokienez, jarduera hau umeen gelan egingo da eta 30-40 minutu inguru iraungo du.

Ikasleen **antolaketaren** inguruan, talde txikian egingo da.

Baliabide materialei dagokienez, instrumentuen marrazkiak egiteko bost kartulina handi erabiliko ditugu. Hau da, kartulina bakoitzean ipuinean agertzen den instrumentu baten marrazkia egongo da. Horrez gain, musika-tresnak apaintzeko materialak behar dira:

gometsak, paperak (zeta, zelofana, txarola...), hariak, oihalak, kola, artaziak, errotulkiak, margoak, tenperak, pintzelak, etab. **Giza baliabideak** ikasleak eta irakaslea dira.

Aniztasunaren trataera dela eta, gela honetan Hezkuntza Premia Bereziakoko ikasle bat dago. Hortaz, harekiko jarduera honen helburua koloreak lantzea eta tenperak eta plastika materialak erabiltzea da.

Irakaslearen papera ikasteko testuinguruak edo egoerak diseinatzeko bitartekaria, gidatzailea eta laguntzailea izatea izango da.

Ebaluazio teknikak behaketa zuzena eta sistematikoa dira.

Erabiliko diren **ebaluazio tresnak**, behaketarako taula, irakaslearen egunerokoa eta ikasleek egingo dituzten marrazkiak dira.

Ebaluazio adierazleak hurrengoak izango dira:

- Erlazionatzen du kolorea dagokion herriarekin.
- Gozatzen du jarduera plastikoak egiten.
- Taldea gai da adostutako lanak aurrera eramateko.

Jarduera honen bidez, arterako kompetenziaren barruan plastikaren arloa landuko dute. Horrez gain, hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia eta elkarbizitzarako kompetentzia landuko dute, taldeka nola margotu nahi dituzten instrumentuak eztabaidatzen ari direlako. Matematikarako kompetentzia jorratuko dute herri bakoitza bere kolorearekin erlazionatzean. Eta, kompetentzia zientifikoa koloreen nahasketekin esperimendatzean.

6.3. JARDUERA: "LETRAK ZENBATUZ"

Haurrak matematika-estrategia ezberdinak erabil ditzan, "letra zenbatuz" izeneko jarduera diseinatu dugu. Ariketa honetan, instrumentu bat aukeratu, arbelean bere izena idatzi, letrak zenbatu eta dagokion letren zenbakia alboan jarri beharko da. Hitz batzuk daudenean, zein den laburrena, zein luzeena eta zeintzuk duten luzera berdina esango dugu eta zenbakiak txikienetik handienera ordenatuko ditugu.

Jarduera honen **helburu nagusia** haurrak, letra kopuruaren arabera, hitzak alderatzea eta ordenatzea, zenbakiaren grafiarekin adieraziz.

Denbora eta **espazioari** dagokienez, jarduera hau ikasgelan egingo da eta 20 minutu inguru iraungo du.

Ikasleen **antolaketaren** inguruan, talde handian egingo da.

Baliabide materialei dagokienez, arbela, klarionak eta instrumentuak edo instrumentuen txartelak erabiliko dira. **Giza baliabideak** ikasleak eta irakaslea dira.

Aniztasunaren trataera dela eta, gela honetan Hezkuntza Premia Bereziakoko ikasle bat dago. Jardueretan ahalik eta parte-hartze handiena izan dezan saiatu arren, jarduera honetan parte-hartzea oso konplexua ikusten dugu. Hortaz, bera gelan ez dagoen momentuan egiten saiatuko gara.

Irakaslearen papera ikasteko testuinguruak edo egoerak diseinatzeko bitartekaria, gidatzailea eta laguntzailea izatea izango da.

Ebaluazio teknikak behaketa zuzena eta sistematikoa izango dira.

Erabiliko diren **ebaluazio tresnak**, behaketarako taula eta irakaslearen egunerokoa dira.

Ebaluazio adierazleak hurrengoak izango dira:

- Hitzen letren kopurua konparatzen du.
- Hitzak mailaz maila ordenatzeko gai da.
- Zenbakien grafia norabide zuzenean egiten du.

“Letrak zenbatuz” jarduerak Hizkuntza eta literatura-komunikaziorako kompetentzia lantzeko eta Matematikarako kompetentzian zuzenean murgiltzeko aukera ematen du.